

DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

LANDAKOGUNEAREN KUDEAKETA ALDAKETA

Hasierako onespena: Udal Osoko Bilkura ohikoa 18/01/30.

BAOn argitalpena: 34 zk., 18/02/16.

Informazio publikoa: 30 egun, epea 18/04/04an bukatzen da.

http://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2018/02/16/II-643_eus.pdf

LANDAKOGUNEAREN KUDEAKETA-MODUA ALDATZEARI BURUZKO MEMORIA

1. SARRERA

Memoria honen asmoa da Landako Erakustazoka zerbitzu publikoa emateko kudeaketa-modua aldatzearen bideragarritasun juridikoa, teknikoa, soziala eta ekonomiko eta finantzarioa aztertzea.

Zerbitzuaren xedea da Landako erabilera anitzeko eraikina (aurrerantzean, Landakogunea) eta hari atxikitako gainerako lokalak osoki kudeatzea eta ustiatzea.

Durangoko Udalak, herritarrei ematen dizkien zerbitzuak hobetze aldera, espediente bat hasi zuen 2017ko otsailaren 28ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, honako hauek adostu zirelarik:

LEHENA: Toki Araubidearen Testu Bateginaren 97. artikuluan araututako espedientea hasia onartzea, egiaztatzearen komenigarria eta egokia dela Udalak Landako erabilera anitzeko eraikina eta hari atxikitako lokalak ahalmen juridiko osoz kudeatzea eta ustiatzea, eta azokak sustatzea eta kudeatzea, lan-esparrukoak ez diren jarduera ekonomikoak gauzatzeko laguntza ematea eta higiezinak lagatzea eta alokatzea, bai eta parking publikoa kudeatzea ere.

BIGARRENA: Azterketa Batzorde bat izendatzea eta eratzea, Ogasuneko Informazio Batzordea osatzen duten udalkideek eta Udalaren kontu-hartzaileak eta idazkaritzak osatutakoa (hitza bai baina botorik gabe). Aipatutako batzorde horren presidentea bera izango da batzorde berriaren presidente.

HIRUGARRENA: aipatutako espedientearen memoria lantzeko agindua ematea Azterketa Batzordeari, eta batzordearen presidentek udalbatza osoari aurkeztu beharko diola xedatzea.

Gaur egun, kapital osoa udalarena duen SA forma juridikoko sozietate baten bidez ematen da zerbitzua.

Sozietatea desagitearen data gisa 2015eko abenduaren 1a finkatu zen. Alabaina, sozietate horrek, likidazioan egonda, jarduera gauzatzen jarraitu du, oso noizbehinka izan bada ere, ez baitu inolako jarduera proaktiborik gauzatu; likidazio-kontseiluak azpiegiturari eta jarduerari eusteko gutxieneko ekintzak egin ditu.

Uste da zerbitzua zuzenean eman ahal izango dela, hura lehendik dagoen Erakunde Autonomo batean sartuz, zerbitzua ematen jarraitzea komenigarria eta beharrezkoa dela jota.

Kudeaketa-modua finkatzeari dagokionez, kontuan hartu behar dira arau aplikagarriak eta auzitegietan egindako interpretazioak.

Zerbitzu publikoen kudeaketaren esparruan, udalbatzan adostu behar da horiek nola antolatuko diren. TAOAL legearen 86.1 artikuluari idazketa berria eman ostean –TAAIL legeak ere lantzen du–, are garbiago geratzen da ekimen ekonomikoa gauzatzeko, merkatuan eragile gisa esku hartze hutsagatik, edo zerbitzu publikoaren kudeaketa delako, neurria komenigarria eta egokia dela egiaztatzeko espedientea izapidetu behar dela. Espediente hori, TAOAL legearen 86.1 artikulua dion eran, Udalbatzan onartu beharko da, eta zerbitzua zehazki nola kudeatuko den finkatu beharko da.

TAOAL legeak eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako TATBk xedatzen dute toki-erakunde batek jarduera ekonomikoak gauzatzeko ekimen publikoa gauzatu nahi duenean bakarrik beharko dela espediente hori, baina jurisprudentziak egoera guztietan eskatu du, 45 RS artikulua zentzurik zabalenean hartuta.

1.2.- ALDERDI SOZIALAK.

Sarrera

Durangoko Udalak, dagokion erabakiaren bidez, adierazi du zerbitzu publikoa Udalaren enpresa publiko baten bidez zuzenean kudeatzeko egungo egoera aldatu nahi duela, eta lehendik dagoen erakunde autonomo baten bidez kudeatu nahi duela; hain zuzen ere, nahi horri erantzuten dio espediente honek.

Uste da erabaki horrekin baliabideak hobeki erabiltzeko eta zerbitzu publikoa kudeatzeko autonomia gehiago eta hobe lortuko dela.

Ondorio horietarako, jarraibide gisa, zerbitzuaren balizko ikuspegia, misioa, balioak eta helburu estrategikoak finkatzen dira, Landakogunea zerbitzua emateko forma juridikoa finkatze aldera.

MISIOA

Landakogunearen misioa da Landako erabilera anitzeko espazioa eta hari atxikitakoak kudeatzea, jarduera ekonomikoa, kulturala eta soziala sortzeko udalerraren mesedetan.

IKUSPEGIA

Honako hau da gure IKUSPEGIA:

LANDAKOGUNEA espazio iraunkorra, irisgarria, berritzailea, ekintzailea, solidarioa eta bizi-kalitatearekin konprometitua da.

Gure ikuspegia honako printzipio hauetan oinarritzen da:

Landakogunea erreferente bihurtzea Euskal Autonomia Erkidegoan, jarduera-egutegi egonkor eta erakargarri bati esker.

Formatu txikiko eta ertaineko azokak eta ekitaldiak (oposizioak, erakusketak...) sustatzea eta erakartzea.

Erakunde errentagarria eta eraginkorra izatea lortzea, espazioen eta baliabide ekonomikoen, materialen eta giza baliabideen kudeaketari dagokionez.

Landakogunea Durangarrei zabaltzea, pertsona fisikoei zein udalerriko elkarteei.

Landakogunea bertako merkataritzari zabaltzea, haren motor eta sustatzaile izanez.

Zerbitzu irekia, gardena eta arduratsua izan behar du, eta kudeaketa-bikaintasunaren, berrikuntzaren eta kalitatezko zerbitzuak ematearen alde lan egin.

BALIOAK

Honako funtsezko eta oinarrizko printzipio hauei jarraikiz kudeatu behar da Landakogunea:

Pertsonen zuzentzea, udalerriko herritarrei
Tokiko merkataritzara bideratzea
Jarduera ekonomikoa sortzera bideratzea
Erantzukizuna
Gardentasuna
Aukera-berdintasuna
Iraunkortasuna
Efizientzia

HELBURU ESTRATEGIKOAK

Zeharkakotasuna bermatzea
 Jarduera ekonomikoa sustatzea eta sendotzea
 Zerbitzu eraginkorrak eta herritarrek ongi baloratutakoak ematea, pertsonen bizi-kalitatea bermatze aldera
 Herritar guztiek udalerriko zerbitzuak eskuratzeko aukera dutela ziurtatzea
 Espazioaren kalitatea hobetzea
 Ekipamenduak arrazionalizatzea eta hobetzea

1.3. UDALERRIKO DATU OROKORRAK

Biztanle kopurua	2016	29.193
Dentsitatea: Biztanleak / km2	2016	2.723,23
Azalera: Ha	2014	1.072
65 urte eta gehiagoko herritarrak: %	2016	18,1
Atzerrian jaiotako herritarrak	2016	2.607
Goi mailako ikasketak dituzten herritarrak	2016	4.768
Euskaldunak: %	2011	48,89
Langabezi-tasa: %	2015	14,4
18 urtetik gorakoen soldata: %u20AC	2014	17.399
Lurzoru urbanizaezina: %	2014	56,56
Familien etxebizitzak: azalera erabilgarria (m2)	2016	87,3
BPG per capita: %u20AC	2012	21.860,90
Jarduera ekonomikoa: Industria % VAB	2012	14,9
Jarduera ekonomikoa: zerbitzuak % VAB	2012	68,9
Enplegua	2016	7.772

1.4. UDALERRIKO DATU EKONOMIKOAK

		Erkidego eta hiri autonomoak	Herriak
		Euskal Autonomia Erkidegoa	Durango
	Data	BALIOA	BALIOA
DIRCE. Enpresa kopurua	2016	151.216	1.695
DIRCE. Industria (enpresa kopurua)	2016	12.058	95
DIRCE. Eraikuntza (enpresa kopurua)	2016	21.402	197
DIRCE. Merkataritza, garraioa eta ostalaritza (enpresa kopurua)	2016	59.284	671
DIRCE. Guztira, zerbitzuak (enpresa kopurua)	2016	58.472	732
- DIRCE. Informazioa eta komunikazioak (enpresa kopurua)	2016	2.821	35
- DIRCE. Finantza eta aseguru arloko jarduerak (enpresa kopurua)	2016	2.957	35
- DIRCE. Higiezinak (enpresa kopurua)	2016	2.686	26
- DIRCE. Jarduera profesional eta teknikoak (enpresa kopurua)	2016	25.553	292
- DIRCE. Hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak (enpresa kopurua)	2016	12.338	181
- DIRCE. Bestelako zerbitzu pertsonalak (enpresa kopurua)	2016	12.117	163
Nekazaritza errolda. Ustiategi kopurua	2009	16.554	37
Nekazaritza errolda. Nekazal lurren azalera	2009	190.394,98	226,47
Nekazaritza errolda. Ganadutegiak	2009	171.988,3	254,07
2011ko errolda: Etxebizitza familiarrak	2011	1.017.602	12.342

2011ko errolda: lehen etxebizitzak	2011	888.940	11.015
2011ko errolda: bigarren etxebizitzak	2011	47.659	555
2011ko errolda: etxebizitza hutsak	2011	81.003	772

1.5.- UDALERRIKO ELKARTEEN DATUAK. Erregistratutako elkarte kopurua

Kultur elkarteak	45
Gizarte ekintzako elkarteak	30
Emakume elkarteak	5
Auzo elkarteak	6
Kirol elkarteak	33
Gazte elkarteak	8
Aisialdi elkarteak	7
Bestelakoak	4
Alderdi politikoak	7
Sindikatuak	4

2.- GAUR EGUN ZERBITZUA NOLA EMATEN DEN

Landako Erakustazoka SA (LESA) sozietate anonimo publiko gisa eratu zen, Durangoko Udalaren kapitalarekin bakarrik, formatu txikiko eta ertaineko era askotako ekitaldiak gauzatzeko diseinatutako espazio publikoa kudeatzeko.

Honako espazio hauek kudeatzen ditu:

Landako gunea
Elkartegi ekitaldi-aretoa
Aparkalekua

Zerbitzuak Durangoko edo beste edozein tokitako elkarte publikoen eta pribatuen jardueretara bideratuta daude.

2.1.- INSTALAZIOAK

LANDAKO GUNEA era askotako ekitaldiak antolatzeko erabiltzen den banaketarik gabeko espazio garbia da, eta zainzapeko aparkaleku bat du.

Honako ezaugarri nagusi hauek ditu:

135x30x10 neurriak dituen barruti angeluzuzena
solairu bakarrekoa
barnealdea guztiz irekia
hiru modulu asketan bana daiteke bi ate eraisgarriren bidez.

AZALEREN TAULA

Landako Gunea	azalera (m2)
1.modulua	1.747,04
2.modulua	1.644,46
3.modulua	882,41
Azalera, guztira:	4.273,91

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK

Landakoko argindarraren potentzia hiru gunetan dago banatuta:

Kutxatila motak	Kopurua	Potentzia (w)		
		Bakoitzaren	Aldiberekotasuna	Guztira
1 motako kutxatilak	8	50.000	0,50	200.000
2 motako kutxatilak	16	25.000	0,50	200.000

DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

3 motako kutxatilak	16	15.000	0,50	120.000
Landako Guneako argindarraren potentzia, guztira	520.000			

Kutxatilen banaketa moduloka

Landako Gunea	1 motako kutxatila (50.000 w)	2 motako kutxatila (25.000 w)	3 motako kutxatila (15.000 w)
1.modulua	8	12	0
2.modulua	0	4	12
3.modulua	0	0	4

UR HORNIDURA ETA ISURBIDEAK

Landako Gunea	Hartune kopurua
1.modulua	8
2.modulua	8
3.modulua	4
Hartuneak, guztira	20

TELEKOMUNIKAZIOAN AZPIEGITURA

Ahots eta datuen konexio kutxa bakoitzak hainbat aukera ditu: RJ 45 motako 20 konexio aukera daude bakoitzean; eurretako 10ek ahotserako konexiorako 2 hari ditu, eta beste 10ek datuen konexiorako 8 hari.

Landako Gunea	Konexio puntuak/kutxatilak	Kutxatila kopurua	Konexioak, guztira
Ahotsa	10	40	400
Datuak	10	40	400

Ekitaldi Aretoaren ezaugarri teknikoak:

100 pertsonarentzako edukiera. Ekitaldi-aretoaren azpiegiturei esker, erakunde publikoek eta pribatuek honako jardura hauek antola ditzakete han, beste batzuen artean: hitzaldiak, prestakuntza-ikastaroak, mintegiak, lanbide-topaketak, era askotako jardunaldiak eta aurkezpenak.

Honako ikus-entzunezko zerbitzu hauek ditu ekitaldi-aretoak:

Megafonia finkoa eta haririk gabekoa

Bideo-proiektagailua

Gardenki-proiektagailua

Bat-bateko itzulpenarako kabina

Bideokonferentzia

Bideo- eta audio-grabazioa

Instalazio elektrikoa. Landako Erakustazoka SA (LESA) sozietateak berak bakarrik kudeatzen ditu oinarrizko zenbait zerbitzu, hala nola telefonoa, sare-lineak, elektrizitate- eta ur-hornidura eta hustubidea, haren ezaugarri bereziengatik, eta segurtasun osoa eta antolaketa zehatza bermatze aldera.

Ura eta hustubidea. Landako Erakustazoka SA (LESA) sozietateak berak bakarrik kudeatzen ditu oinarrizko zenbait zerbitzu, hala nola telefonoa, sare-lineak, elektrizitate- eta ur-hornidura eta hustubidea, haren ezaugarri bereziengatik, eta segurtasun osoa eta antolaketa zehatza bermatze aldera. 2. ERANSKINA

Zaintzapeko aparkalekuaren ezaugarri teknikoak

2.2.- LANGILEAK

Lanpostua	Taldea	Antzinasuna
Mantenuko teknikaria	A2	02/08/2005
Lesako administraria	C1	15/03/2004
Aparkalekuko langilea	AP	08/03/2010
Aparkalekuko langilea	AP	08/03/2010
Aparkalekuko langilea	AP	26/12/2011

2.3.- ATXIKITAKO ONDASUNAK

DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

CONCEPTO	BIEN
INSTALACIONES TECNICAS LANDAK	27.516,00
INSTALACIONES TECNICAS OFICIN	1.714,54
INSTALACION SISTEMA COMUNICAC	5.027,15
INSTALACION CENTRALITA ALCATE	10.190,00
PROYECTOR SONY SALON ACTOS	4.380,56
INSTALACIONES TECNICAS SALON	737,62
INSTALACION EQUIPO DE AMPLIFI	832,00
INSTALACION LINEA DE VIDA CUB	4.950,13
DETECTOR DE INCENDIOS PARKING	694,14
	56.042,14
	56.042,14
CARRETILLA ELEVADORA	9.600,00
PLATAFORMA ELEVADORA	11.664,00
	21.264,00
	21.264,00
MATERIAL ELECTRICO	13.111,52
	13.111,52
	13.111,52
PUERTA GARAJE-GEREDIAGA	4.057,14
MATERIAL ELECTRICO	76,00
ELEMENTOS CONTROL PARKING	72.198,00
PUERTAS ACERO INOX BARRAS ANT	7.950,00
INSTALACION SUELO FLOTANTE OF	855,50
	85.136,64
	85.136,64
MOBILIARIO	3.915,22
EQUIPO MULTIFUNCION	600,00
TELEFONO FIJO LANDAKO	389,85
MAMPARAS	9.568,30
SILLAS LANDAKO	10.287,20
ATIL Y POSTES LANDAKO	8.570,70
CONTENEDORES	6.099,60
ESTANTERIAS DEL ALMACEN DE LA	3.623,19
ENFUNDADOR PARAGUAS	2.096,00
STANDS VARIOS FESTIVAL COMUNI	14.767,00
MOBILIARIO PARKING	1.614,60
ARMARIO SALON ACTOS	266,75
PANELES EXPOSICION-CARTELERAS	1.627,00
ARMARIO OFICINAS	413,00
TOTEM+SET DE EXPOSITORES-SEÑA	4.235,50
EQUIPO AIRE FRIO CALOR OFICIN	335,34
CONTENEDOR BASURA C/ RUEDAS	887,58
NAPPY BABY PAÑALES PARKING	1.097,25
PORTAPOSTERS LANDAKOGUNEA	148,00
SOPORTES	1.985,00
MESAS SALON DE ACTOS	71,40
	72.598,48
	72.598,48
ORDENADORES-IMPRESORA	7.610,40
DVD SALON DE ACTOS	814,29
MEMORIA SELECT 500GB 2,5	102,59
	8.527,28
	8.527,28
ROTULACION DEL PABELLON	6.508,00
MASTILES LANDAKO	3.018,75
CUBOS SEÑALIZACION MODULOS LA	8.795,34
PENDONES LANDAKO GUNEA	7.011,00
SEÑALITICA PARKING	10.258,62
MICROFONO INALAMBRICO SOLAPA	560,50

2.4.- KONTRATUAK

SUMINISTROS		
IBERDROLA CLIENTES, S.A.U	Electricidad	C.suministro eléctrico. 2 pabellón y 2 garaje. Del 08/03/2004 y 29/03/2004.
NATURGAS-EDP COMERCIALIZADORA	Gas	C. suministro gas natural. Año. 26/11/2003.
TELEFONICA MOVILES ESPAÑA	telefono movil	Telefonía móvil
EUSKALTEL, S.A.	telefono fijo	Telefonía fija
CONSORCIO DE AGUAS BILBAO	aguas	C. Suministro. 08/11/2004.
RICOH ESPAÑA, SLU	fotocopiadora	Mantenimiento
LUPASS OFICINAS,S.L.	material oficina	
MANTENIMIENTOS		
CEDATEC 2000	nominas	C.Mantenimiento programa de nominas. Renovacion 15.11.2016.
SAGE SPAIN,S.L.	contabilidad	C. Mantenimiento programa de contabilidad. Anual. Firmado en 31/05/2004.
INSERKOR, S.A.- BIZKOR	extintores	C. mantenimiento y conservación contra incendios. Anual. Firmado el 30/09/2004.
MUTUALIA IMQ PREVENCIÓN,S	mutua	ación servicios en materia de prevención de riesgos laborales. Anual. 06/08/2004.
IZA ASCENSORES, S.L.	ascensores	Contrato mantenimiento Ascensores (3) Landako gunea. Anual. 19/02/2014.
GIROA, S.A.U.	calefacción	C. mantenimiento de la calefacción de Landako gunea. Anual. 06/02/2005.
ETXESOFTECHNOLOGIES CON	informatica	C. mantenimiento informatico de Lesa. Anual. 2005.
ZUBIZARRETA CONSULTING, S	auditoria	auditoria-cuentas
MEYPAR, S.L.	puertas landakogunea	C. mantenimiento de la maquinaria del parking. 01/07/2014.
MAINAC,S.L.	parking	C. Mantenimiento Puertas Seccionales. 20/02/2012.
HYGOLET IBERIA,S.L.	puertas landakogunea	C. mantenimiento sistemas bacteriostáticos WC parking. Anual.15/10/2014.
BILBO GUARDAS SERV. INTEG	seguridad	C. servicios seguridad en Landako Gunea. 26/11/2015.
PEGAMO NAVARRA, S.A.	Carretilla elevadora	C. mantenimiento anual. 16/02/2016.
BEXENCARDIO-OSATU,S.COOP	desfibrilador	Contrato Mantenimiento desfibrilador. 03/10/2016.

ENPRESA	KONTRATUA
HELVETIA CIA SUIZA SA, PABILIOIAREN ASEGURUA	Urteko aseguru-poliza. 2017.
LAGUN ARO BIZITZA	2017ko bizi-asegurua.
LAGUN ARO BIZITZA	2017ko bizi-asegurua.
ARAG CAP BABES JURIDIKOKO POLIZA	Babes juridikoa

3.- EGOERA EKONOMIKOA

3.1.- SOZIEATEAREN EGUNGO KONTUAK

BALANTZEA

AKTIBOA	Memoriako oharrak	31.12.16 ekitaldia	31.12.15 ekitaldia
A) AKTIBO EZ ARRUNTA		42.206,32	33.754,48
I. Ibilgetu ukiezinak	7	---	---
6. Aplikazio informatikoak		---	---
8. Ondasun higiezinaren erabileraren gaineko eskubideak		---	---
II. Ibilgetu materialak	5	41.725,51	33.273,67
2. Instalazio teknikoak, makinak, tresnak, altzariak eta bestelako ibilgetu materialak		41.725,51	33.273,67
V. Epe luzerako inbertsio finantziarioak	9	480,81	480,81
1. Ondare tresnak		480,81	480,81
B) AKTIBO ARRUNTA		338.729,84	246.672,81
III. Zordun komertzialak eta kobratzeke dauden beste kontu batzuk		53.267,07	53.788,41
1. Salmenta eta zerbitzu prestazioen bezeroak	9	32.449,84	40.602,44
2. Bezeroak, taldeko enpresa eta asoziatuak	9, 23	20.817,23	13.183,18
5. Zerga arrunten aktiboak	12	---	2,79
V. Epe laburrerako inbertsio finantziarioak	9	517,24	517,24
5. Bestelako aktibo finantziarioak		517,24	517,24
VII. Esku-dirua eta antzerako beste aktibo likidoak	9	284.945,53	192.367,16
1. Diruzaintza		284.945,53	192.367,16
AKTIBOA GUZTIRA (A + B)		380.936,16	280.427,29

BALANTZEA

ONDARE GARBI ETA PASIBOA	Memoriak o oharrak	31.12.16 ekitaldia	31.12.15 ekitaldia
A) ONDARE GARBIA		310.015,85	181.528,18
A-1) Funts propioak	9	301.427,98	170.243,89
I. Kapitala		360.200,00	360.200,00
1. Kapital eskrituratua		360.200,00	360.200,00
V. Aurreko ekitaldietako emaitzak		(189.956,11)	(308.645,76)

		)	)
		(189.956,11	(308.645,76
2. (aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak)		)	)
VII. Ekitaldiko emaitza		131.184,09	118.689,65
A-3) Jasotako diru-laguntza, donazio eta legatua	18	8.587,87	11.284,29
B) PASIBO EZ ARRUNTA		---	7.221,95
I. Epe luzerako hornidurak	14	---	7.221,95
1. Langileei epe luzera prestazioak eskaintzeagatiko obligazioak		---	7.221,95
C) PASIBO ARRUNTA		70.920,31	91.677,16
III. Epe laburreko zorrak		115,00	115,00
5. Bestelako pasibo finantziarioak		115,00	115,00
IV. Epe laburreko zorrak taldeko enpresekin eta asoziatuekin	9 , 23	6.368,63	6.368,63
1. Zorrak taldeko enpresekin eta asoziatuekin		6.368,63	6.368,63
V. Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko bestelakoak		64.436,68	85.193,53
3. Bestelako hartzekodunak		39.775,24	32.915,76
4. Langileak (ordaintzeke dauden ordainsariak)		0,14	25.844,86
6. Bestelako zorrak administrazio publikoekin	12	24.661,30	26.432,91
GUZTIRA ONDARE GARBIA ETA PASIBOA (A + B + C)		380.936,16	280.427,29

GALDU-IRABAZIEN KONTUA

	Memoria ko oharrak	(ZOR) HARTZEKO 16-12-31	(ZOR) HARTZEKO 15-12-31
A) ERAGIKETA JARRAITUAK			
. Salerosketen zenbateko garbia	25	284.746,66	303.360,18
b) Zerbitzuak ematea		284.746,66	303.360,18
. Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk	18	234.809,21	234.809,21

b) Ekitaldiaren emaitzari gehitutako ustiapeneko diru-laguntzak			
. Langile-gastuak	13	234.809,21 (244.284,15)	234.809,21 (252.480,39)
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak		(174.796,35)	(210.057,73)
b) Karga sozialak		(69.487,80)	(42.422,66)
. Ustiapeneko beste gastu batzuk		(151.741,02)	(171.835,72)
a) Kanpoko zerbitzuak eta kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	13	(151.617,62)	(171.720,35)
b) Zergak		(123,40)	(115,37)
c) Merkataritza-operazioetan hornigaiak galtzea, hondatzea eta aldatzea		---	---
. Ibilgetuaren amortizazioa	5 , 7	---	---
. Ibilgetu ez-finantzarioari diru-laguntzak eta bestelakoak	18	2.696,42	2.696,42
egoztea		4.956,95	2.125,91
. Beste emaitza batzuk			
A.1) USTIAPENAREN EMAITZA		131.184,07	118.675,61
. Diru-sarrera finantzarioak	9	0,02	14,04
b) Balore negoziagarriak eta beste tresna finantzario batzuk		0,02	14,04
b 2) Hirugarrenena		0,02	14,04
A.2) FINANTZA-EMAITZA		0,02	14,04
A.3) ZERGEN AURREKO EMAITZA (A.1 + A.2)		131.184,09	118.689,65
. Mozkinen gaineko zerga	12	---	---
A.4) ETENDAKO ERAGIKETETATIK SORTUTAKO EKITALDIKO EMAITZA		131.184,09	118.689,65
B) ETENDAKO ERAGIKETAK		---	---
. Etendako eragiketetatik sortutako ekitaldiko emaitza, zergak garbi		---	---
A.5) EKITALDIKO EMAITZA	3	131.184,09	118.689,65

3.2.- EMAITZAK APLIKATZEA

Sozietatearen emaitza, 2016an, 131.184,09 euroko mozkin izan da, eta hori aurreko ekitaldietako emaitzen kontuan aplikatuko da, behin onartutakoan.

3.3.- IBILGETU MATERIALA

2016 ekitaldian, honako mugimendu hau egon da ibilgetu materialaren eta hari dagozkion amortizazio metatuen kontuetan:

	Hasierako saldoa Saldo Inicial	2016ko altak Altas 2016	2016ko bajak Bajas 2016	Amaierako saldoa Saldo Final
KOSTUA / COSTE				
Instalazio teknikoak / Instalaciones técnicas	56.042,14	980,80	---	57.022,94
Makineria / Maquinaria	21.264,00	---	---	21.264,00
Tresneria / Utillaje	13.111,52	2.466,00	---	15.577,52
Beste instalazio batzuk / Otras instalaciones	85.136,64	---	---	85.136,64
Altzariak / Mobiliario	72.598,48	856,04	---	73.454,52
Informazio prozesuetarako ekipamenduak Equipos para procesos de información	8.527,28	2.540,00	---	11.067,28
Beste ibilgetu batzuk / Otro inmovilizado	38.452,91	1.609,00	---	40.061,91
KOSTUA GUZTIRA / TOTAL COSTE	295.132,97	8.451,84	---	303.584,81

	Hasierako saldoa Saldo Inicial	2016ko altak Altas 2016	2016ko bajak Bajas 2016	Amaierako saldoa Saldo Final
AMORTIZAZIO METATUA AMORTIZACIÓN ACUMULADA				
Instalazio teknikoak / Instalaciones técnicas	(49.593,87)	---	---	(49.593,87)
Makineria / Maquinaria	(12.442,46)	---	---	(12.442,46)
Tresneria / Utillaje	(13.111,52)	---	---	(13.111,52)
Beste instalazio batzuk / Otras instalaciones	(75.334,99)	---	---	(75.334,99)

DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Altzariak / Mobiliario	(69.900,85)	---	---	(69.900,85)
Informazio prozesuetarako ekipamenduak		---	---	
Equipos para procesos de información	(8.423,36)			(8.423,36)
Beste ibilgetu batzuk / Otro inmovilizado	(33.052,25)	---	---	(33.052,25)
AMORTIZAZIOA GUZTIRA	(261.859,30)			(261.859,30)
TOTAL AMORTIZACIÓN		---	---	)
GUZTIRA GARBIA / TOTAL NETO	33.273,67			41.725,51

2015 eta 2016 ekitaldiak ixtean, sozietateak guztiz amortizatuta zeuden ibilgetu materialaren elementuak erabiltzen jarraitzen zuen, honako xehetasun hauekin bat:

KONTUA / CUENTA	2016ko Kostua Coste 2016	2015eko Kostua Coste 2015
Tresneria / Utillaje	13.111,52	13.111,52
Instalazio teknikoak / Instalaciones técnicas	43.823,45	43.823,45
Informazio prozesuetarako ekipamenduak Equipos para procesos de información	8.138,85	8.138,85
Beste instalazio batzuk / Otras instalaciones	69.977,14	69.977,14
Beste ibilgetu batzuk / Otro inmovilizado material	22.505,09	22.505,09
Altzariak / Mobiliario	69.469,91	69.469,91
GUZTIRA / TOTAL	227.025,96	227.025,96

3.4.- HIGIEZIN-INBERTSIOAK
Sozietatea ez da higiezin jabea.

3.5.- IBILGETU IMMATERIALA

2016 ekitaldian honako mugimendu hau egon da atxikitako balantzearen epigrafe horretan:

	Hasierako saldoa Saldo Inicial	2016ko altak Altas 2016	2016ko bajak Bajas 2016	Amaierako saldoa Saldo Final
<u>KOSTUA / COSTE</u>				
Aplikazio informatikoak / Aplicaciones informáticas	9.916,00	---	---	9.916,00
Higiezina erabiltzeko eskubidea / Derecho uso inmueble	---	---	---	---
<u>KOSTUA GUZTIRA / TOTAL COSTE</u>	9.916,00	---	---	9.916,00
	Hasierako saldoa Saldo Inicial	2016ko altak Altas 2016	2016ko bajak Bajas 2016	Amaierako saldoa Saldo Final
AMORTIZAZIO METATUA				
AMORTIZACIÓN ACUMULADA				
Aplikazio informatikoak / Aplicaciones informáticas	(9.916,00)	---	---	(9.916,00)
Higiezina erabiltzeko eskubidea / Derecho uso inmueble	---	---	---	---
AMORTIZAZIOA GUZTIRA				
TOTAL AMORTIZACIÓN	(9.916,00)	---	---	(9.916,00)
GUZTIRA GARBIA / TOTAL NETO	---			---

Ibilgetu immaterialari dagokionez, 2015eko eta 2016ko abenduaren 31n guztiz amortizatuta zegoen honako zenbateko hau:

KONTUA / CUENTA	2016ko Kostua	2015eko Coste	2016ko Kostua	2015eko Coste
-----------------	------------------	------------------	------------------	------------------

	2016	2015
Aplikazio informatikoak / Aplicaciones informáticas	9.916,00	9.916,00
GUZTIRA / TOTAL	9.916,00	9.916,00

3.6.- AKTIBO ETA PASIBO FINANTZARIOAK

“Epe luzeko finantza-inbertsioak” eta “Epe motzeko finantza-inbertsioak” epigrafeak osatzen dituzten sailetan honako mugimendu hau egon da:

	16.01.01	Eransketak	Kenketak	Intsuldaketa	16.12.31
	01.01.16	Adiciones	Bajas	k Traspasos	31.12.16
Epe luzeko finantza inbertsioak					
Inversiones Financieras a Largo Plazo ¹	480,81	---	---	---	480,81
Bestelako aktibo finantzarioak					
Otros activos financieros	480,81	---	---	---	480,81
Epe laburreko finantza inbertsioak	517,24	---	---	---	517,24
Inversiones Financieras a Corto					

DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Plazo					
Bestelako aktibo finantzarioak					
Otros activos financieros	517,24	---	---	---	517,24
GUZTIRA / TOTAL	998,05	---	---	---	998,05

2016ko abenduaren 31ko balantzean jasotako pasibo finantzarioak honela sailkatzen dira kategoriatan, balorazio-arauetan finkatutako sailkapenarekin bat, eta taldeko, sozietate taldeaniztuneko eta elkartutako enpresekiko zorrak barne:

MOTAK / CLASES	Epe luze finantza pasiboak	Epe laburreko finantza pasiboak	GUZTIRA TOTAL
MAILAK / CATEGORÍAS	Pasivos financieros largo plazo	Pasivos financieros corto plazo	
	Eratorkiak, beste batzuk Derivados, Otros	Eratorkiak, beste batzuk Derivados, Otros	
	2016.12.31 31.12.2016	2016.12.31 31.12.2016	2016.12.31 31.12.2016
ORDAINTZEKO DAUDEN ZORDUNKETAK			
ETA PARTIDAK - Taldekoak	---	6.368,63	6.368,63
DÉBITOS Y PARTIDAS A PAGAR – Grupo			
Hartzekodunak, taldeko enpresak	---	6.368,63	6.368,63
Acreedores empresas del grupo			
ORDAINTZEKO DAUDEN ZORDUNKETAK			
ETA PARTIDAK - Gainerakoa	---	39.890,38	39.890,38
DÉBITOS Y PARTIDAS A PAGAR – Resto			
GUZTIRA / TOTAL	---	46.259,01	46.259,01

FINANTZARIO	AKTIBOAK	2017	2018	2019	2020	2021	eta hurrengoak y siguientes	Guztira Total
ACTIVOS FINANCIEROS								

DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

EPE LUZERA FINANTZARIO									
INBERTSIOAK									
INVERSIONES FINANCIERAS A	---	---	---	---	---	---	480,81	480,81	
LARGO PLAZO									
Bestelako finantzario aktiboak (epe luzera ipinitako fidantzak)									
Otros activos financieros (fianzas constituidas a largo plazo)	---	---	---	---	---	---	480,81	480,81	
KOMERTZIAL ZORDUNAK ETA KOBRTATZEKO BESTELAKO KONTUAK	53.267,07	---	---	---	---	---		53.267,07	
DEUDORES COMERCIALES Y OTRAS CUENTAS A COBRAR									
Bezeroak, taldeko enpresak	20.817,23	---	---	---	---	---		20.817,23	
Cientes empresas del grupo									
Bezeroak, enpresak	32.449,84	---	---	---	---	---		32.449,84	
Cientes empresas									
EPE LABURRERA FINANTZARIO									
INBERTSIOAK									
INVERSIONES FINANCIERAS A	517,24	---	---	---	---	---		517,24	
CORTO PLAZO									
Bestelako finantzario aktiboak (epe laburrera gordailuak)									
Otros activos financieros (Depósitos constituidos a corto plazo)	517,24	---	---	---	---	---		517,24	
ESKUDIRUA ETA BESTELAKO LIKIDO AKTIBO BALIOKIDEAK	284.945,5	---	---	---	---	---		284.945,5	
EFFECTIVO Y OTROS ACTIVOS LÍQUIDOS EQUIVALENTES	3							3	
Diruzaintza / Tesorería	284.945,5	---	---	---	---	---		284.945,5	
	3							3	
GUZTIRA / TOTAL	338.729,8	---	---	---	---	---	480,81	339.210,6	
	4							5	
FINANTZARIO PASIBOAK	2017	2018	2019	2020	2021	eta hurrengoak y	Guztira Total		
PASIBOS FINANCIEROS									

siguientes							
KOMERTZIAL							
HARTZEKODUNAK	ETA						
ORDAINTZEKO	BESTELAKO	46.259,					46.259,0
KONTUAK	01		---	---	---	---	1
ACREEDORES COMERCIALES Y							
OTRAS CUENTAS A PAGAR							
Hartzekodunak, taldeko enpresak		6.368,6					
Proveedores empresas del grupo	3		---	---	---	---	6.368,63
Zenbait hartzekodunak		39.890,					
Acreedores varios	38		---	---	---	---	39.890,38
GUZTIRA / TOTAL		46.259,01	---	---	---	---	46.259,01

5.7.- Ondare garbia eta funts propioak

2016ko funts propioek honako osaera eta mugimendu hau izan dute:

KONTZEPTUA / CONCEPTO	Hasierako saldoa Saldo Inicial	Intsuldaketak Traspasos	2016ko emaitza Resultado 2016	Amaierako saldoa Saldo Final
Kapital soziala / Capital social	360.200,00	---	---	360.200,00
Aurreko ekitaldietako emaitzak / Resultados de ejercicios anteriores	(308.645,76)	118.689,65	---	(189.956,11)
Galerak eta irabaziak / Pérdidas y ganancias	118.689,65	(118.689,65)	131.184,09	131.184,09
GUZTIRA / TOTAL	170.243,89	---	131.184,09	301.427,98

Sozietatearen akzioak ez daude mugatuta.

2016ko abenduaren 31n, sozietatearen kapital soziala 100 akzio izendunez ordezkatuta dago, bakoitzak 3.602,00 euroko balio izenduna duelarik; horiek guztiak Durangoko Udalak harpidetuta eta ordainduta daude, hura baita sozietatearen akziodun bakarra.

3.8.- Administrazio Publikoekiko saldo korronteak

Administrazio Publikoekiko saldo korronteen osaera honako hau da:

ZORDUNAK / DEUDORES	16.12.31 31.12.16	15.12.31 31.12.15
Herri ogasuna, atxikipenengatik zorduna / Hacienda Foral, deudora por retenciones	---	2,79
GUZTIRA / TOTAL	---	2,79
HARTZEKODUNAK / ACREEDORES	16.12.31 31.12.16	15.12.31 31.12.15
Herri ogasuna, PFEZrengatik hartzekoduna / Hacienda Foral, acreedora por IRPF	7.703,68	7.066,44
Herri ogasuna, BEZrengatik hartzekoduna / Hacienda Foral acreedora por I.V.A.	10.991,98	13.545,28
Gizarte Segurantzako Erakundeak hartzekodunak / Organismos de la Seguridad Social acreedores	5.965,64	5.821,19
GUZTIRA / TOTAL	24.661,30	26.432,91

3.9.- Diru-sarrerak eta gastuak

1. Salerosketen zenbateko garbia:

2015eko eta 2016ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontuko epigrafe horrek zerbitzu-salmentaren eta zerbitzu-ematearen, Landakogunearenalokairuaren eta ibilgailu-aparkalekuaren zenbatekoa jasotzen du.

2. Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk:

Udalaren sozietate publikoa bazkidearen diru-laguntzen bidez konpentsatu zen 2015ean eta 2016an, 234.809,21 eta 234.809,21 euroko zenbatekoz, hurrenez hurren.

Langile-gastuak:

3. 2015 eta 2016 ekitaldietako "Soldatak, lansariak eta antzekoak" eta "Karga sozialak" kontu-sailen zenbatekoa honela zegoen osatuta (eurotan):

SOLDATAK, LANSARIAK ETA BERDINETSIAK	2016.12.31	2015.12.31
SUELDOS, SALARIOS Y ASIMILADOS	31.12.2016	31.12.2015
Soldatak eta lansariak / Sueldos y salarios	174.796,35	210.057,73
Indemizazioak / Indemnizaciones	---	---
GUZTIRA / TOTAL	174.796,35	210.057,73
GIZARTE ZAMAK / CARGAS SOCIALES	2016.12.31	2015.12.31
	31.12.2016	31.12.2015
Enpresak ordaintzen duen gizarte segurantzak Seguridad Social cargo empresa	63.252,81	35.227,91
Pentsio Sistema osagarrietarako ekarpenak Aportaciones a sistemas complementarios de pensiones	4.419,52	4.419,52
Beste gizarte zamak / Otros gastos sociales	1.815,47	2.775,23
GUZTIRA / TOTAL	69.487,80	42.422,66

INFORMAZIO ZATIKATUA

Hona hemen 2016ko salerosketa-zenbatekoaren xehetasunak:

KONTZEPTUA / CONCEPTO	Zenbatekoa Importe
Instalazioen alokairua eta bestelakoak / Alquiler instalaciones y otros	166.704,55
Parkina / Parking	118.042,11
GUZTIRA / TOTAL	284.746,66

4.- ALDERDI JURIDIKOAK

4.1.- Zerbitzu publikoak emateko moduak.

TAAIL edo Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasuna Legeak (abenduaren 27ko 27/2013 Legea; 30eko BOE) idazketa berria eman zion Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (TAOL) (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 85. artikuluari. Hain zuzen ere, zenbait muga ezarri zituen zerbitzuak antolatzeke ahalmenaren gainean, une horretara arte toki-erakundeek askatasun osoz antolatzen baitzituzten.

Arauaren 2. atalean, zerbitzuak kudeatzeko modu posibleen zerrenda bat jasotzen da, eta zuzenak eta zeharkakoak bereizten dira. Arauak ez zuen eraginik izan ordurako aurreikusitako moduren batean kudeatzen ziren zerbitzuetan; zerbitzuak kudeatzeko modua aldatu behar denean, berriz, derrigorrean aplikatu behar da.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoak (AEFILO) xedatu zuen tokiko oinarrizko araudia (TAOL) aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioetara egokitu behar zela, Toki Administrazioen araubide juridikoan egindako aldaketak justifikatze eta azaltze aldera; besteak beste, tokiko zerbitzu publikoak kudeatzearekin lotutako oinarrizko arauetan egindako aldaketak.

TAOLen, beraz, nabarmen aldatu da kudeaketa-modua askatasunez hautatzeko lehengo irizpidea, eta idazketa berri bat eman zaio haren 85.2 artikuluari.

Toki-eskumeneko zerbitzu publikoak jarraian aipatzen diren moduen artetik iraunkorra eta efizienteena denean kudeatu beharko dira: A) Kudeaketa zuzena eta B) Zeharkako kudeaketa (TAOLen 85.2 art.).

Honako hauek dira legeak aipatzen dituen printzipioak:

Lehenengo printzipioa Administrazio Publikoen aurrekontu-egonkortasuna da. Arau horrek finantziazio-ahalmenaren orekari edo egiturazko superabitari egiten dio erreferentzia (EKren 135. artikulua, AEFILOren 3. artikulua), eta debekatuta geratzen da egiturazko defizitean erortzea (AEFILOren 11.2 art.). Toki Erakundeei dagokienez, urteko oreka edo superabita finkatzen da (AEFILOren 11.4 art.).

Beste alde batetik, Administrazio Publiko bakoitzak, defizitaren, zor publikoaren eta merkataritza-zorraren berankortasunaren mugen barruan, uneko eta etorkizuneko gastu-konpromisoak finantzatzeko duen ahalmenari egiten dio erreferentzia finantza-iraunkortasunaren printzipioak (AEFILOren 4.2 art.).

Hirugarren printzipioa gastu-araua da. Gastu publikoaren hazkundera mugatu da, gastu publikorako gainditu ezin den gehienezko tasa bat finkatuz, ezta ahalmena edo likidezia

izanda ere, oparoaldietan ez dadin hartu krisialdietan aurre egin ezingo zaion konpromisorik (AEFILOren 12. eta 30. art.).

Aipatutako zerga-konsolidazioaren printzipioak beste honako hauekin osatzen dira: urte anitzeko banaketaren printzipioa –aurrekontuak programatzea–, gardentasunarena –informazioa ematea–, efizientziarena –diru-sarrera edo gastu publikoei eragiten dieten gastu-politikak eta egintza juridikoak ebaluatzea–, erantzukizunarena –Administrazio bakoitzak bere aldetik erantzuteko duen betebeharra, Europar Batasunarekiko konpromisoak betetzen ez baditu–, eta erakunde-leialtasunarena (AEFILOren 5.-9. artikulua).

Eta, beste alde batetik, zerbitzu publikoen esleipenaren eta erabileraren efizientiaren printzipioa, ezarri nahi diren gastu publikoko politika, erregelamendu, egintza edo kontratu guztiak ebaluatzeko betebeharra finkatzen duena, horiek eragina izan behar badute uneko eta etorkizuneko gastu eta diru-sarrera publikoetan, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioen ikuspegitik (AEFILOren 7. art.).

Toki Araubidearen Oinarrien Legeak ere sartu du lehentasunezko irizpide bat kudeaketa-modu zuzenen artean, lehentasuna eman baitie modu administratiboari (tokiko erakundeak edo erakunde autonomoak berak kudeatzea) enpresa-modu publikoen eta pribatuen gainetik (enpresa-erakunde publikoak eta merkataritza-sozietate publikoak). Zehazki, honako hau xedatzen du TAOLen 85.2.A) artikulua:

“A) Zuzeneko kudeaketaz:

- a) Toki-erakundearen beraren kudeaketaz.
- b) Tokiko erakunde autonomo baten bidez.
- c) Tokiko enpresa-entitate publiko baten bidez.
- d) Tokiko merkataritza-sozietate baten bidez, bere sozietatearen kapitala titularitate publikokoa bada.

Xede horrekin landutako justifikazio-memoria baten bidez, a) eta b) idatzi-zatietan xedatutako moduak baino jasangarriagoak eta eraginkorragoak direla egiaztatzen denean bakarrik erabili ahal izango dira c) eta d) idatzi-zatietan aurreikusitako moduak, eta, horretarako, errentagarritasun ekonomikoari eta inbertsioa berreskuratzeari dagozkion irizpideak hartu beharko dira kontuan. Gainera, jasotako aholkularitzaren justifikazio-memoria espedientean jasoko da. Izan ere, hura osoko bilkurara eramango da, bertan onespina eman diezaioten. Zerbitzuaren kostuari eta jasotako laguntza teknikoari buruzko txostenak ere gehituko zaizkio memoriari, eta jakitera eman beharko dira txostenok. Ondorio horietarako, tokiko kontu-hartzailearen txostena eskatuko da.

Planteatutako proposamenen finantza-iraunkortasuna baloratuko du kontu-hartzaileak, AEFILOren 4. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki”.

Beraz, merkataritza-moduak onargarriak izan daitezen, justifikazio-memoria baten bidez egiaztatu beharko da aurreko moduak baino “jasangarriagoak eta eraginkorragoak” direla, errentagarritasun ekonomikoari eta inbertsioa berreskuratzeari dagozkion irizpideak kontuan hartuta. Tokiko kontu-hartzailetzak arduratu beharko du finantza-iraunkortasuna ebaluatzeaz –ez efizientzia ebaluatzeaz–.

TATBren 97. artikulua finkatzen du zer alderdi aztertu behar dituen eta gutxieneko hiru gai aipatzen ditu:

- kudeaketa-modua hautatzea;
- zerbitzu-ematea zer egoeratan etengo litzatekeen; eta
- prezioen proiektu bat.

Memoria horrek, gainera, honako alderdi hauek lantzen ditu:

- Behar diren ondasunen eta instalazioen atxikipena.
- Zerbitzuaren ezarpenaren eta funtzionamenduaren azterketa ekonomiko eta finantzarioa, erabiltzaileengandik jaso beharreko tarifak zehaztuz, hala badagokio.
- Alderdi juridikoen artean, TKZE dioenez, honako hauek jaso behar ditu memoriak: zerbitzuaren ezaugarriak eta hura ezartzea ahalbidetzen duten aginduekiko egokitzapena; kudeaketa-modua, legeak aurreikusitako artetik, eta zer egoeratan utziko zaion zerbitzua emateari (TATBren 97. artikuluan ere jasotzen dira, eta, beraz, xedaezinak dira); eta organo autonomoaren, enpresa-erakunde publikoaren edo, hala badagokio, merkataritza-sozietatearen erregelamenduen eta estatutuen proiektua.

4.2.- Kudeaketa-modua hautatzea.

TAOLen 85 bis artikulua honako hau xedatzen du zerbitzua tokiko erakunde autonomo baten bidez edo tokiko enpresa-entitate publiko baten bidez kudeatzeari buruz:

Toki-eskumeneko zerbitzuen zuzeneko kudeaketa, edo tokiko erakunde autonomoen bidez egiteko, edo tokiko enpresa-entitate publikoen bidez egiteko, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Jardueraren apirilaren 14ko 6/1997 Legeko 45.etik 52.era arteko eta 53.etik 60.era arteko artikuluetan xedatutakoaz arautuko dira hurrenez hurren, aplikagarriak zaizkien heinean, berezitasun hauek kontuan hartuta:

- a) Toki-erakundeko osoko bilkurari dagokio erakunde eta entitate horiek sortzea, aldatzea, bategitea eta kentzea, eta berak onartuko ditu haien estatutuak ere. Toki-erakundeko zinegotzigo, eremu edo pareko organoren bati atxikita gelditu behar dira, nahiz eta, tokiko enpresa-entitate publikoen kasuan, tokiko erakunde autonomoren bati atxikitzea ere izango duten. Salbuespenez, beren izaera bereko edo bestelako beste ente batzuk zuzendu edo koordinatzeko eginkizuna estatutu bidez aginduta duten tokiko enpresa-entitate publikoak ere egon daitezke.
- b) Erakunde eta entitate horien zuzendaritzako organo goreneko titularra, edo herri-administrazioetako karrerako funtzionario bat zein lan-kontratupeko bat, edo arlo pribatutako profesional bat izan behar da, goi-mailako tituluduna kasu biotan, eta bost urte baino gehiagoko lanbide-aztura duena bigarrenaren kasuan. Lege honetako X. tituluari aipatutako udalerrietan, zuzendaritza-organotzat hartuko da.
- c) Tokiko erakunde autonomoetan artezkaritza-kontseilu bat egon behar da, eta kontseilu horren estatutuetan zehaztuko da bere osaera.
- d) Tokiko enpresa-entitate publikoetan administrazio-kontseilu bat egon behar da, eta kontseilu horren estatutuetan zehaztuko da bere osaera. Administrazio-kontseiluko idazkariak funtzionario publikoa izan behar du, eta goi-mailako titulazioa eskatu behar zaio funtzionario izateko; berak fede publikoaren zerbitzuak beteko ditu eta erakunde horietako kide bakarreko eta kide anitzeko organoen lege-aholkularitza egingo du.
- e) Ordainsarien baldintzak zehaztu eta aldatzeko, bai zuzendaritza-taldekoenak zein gainerako langileenak, dagokionaren arabera osoko bilkurak edo gobernu-batzarrak hortaz onartutako arauetara egokitu behar da beti.
- f) Toki-erakundeko zinegotzigo, eremu edo pareko organoen kontrolpean egongo dira zerbitzuak, berariaz langileen gaineko gastuen bilakaerari eta giza baliabideen kudeaketari buruz.
- g) Urtero bidali behar diote beren ondasun eta eskubideen inbentarioa toki-erakundeko zinegotzigo, eremu edo pareko organoari.
- h) Toki-erakundeko zinegotzigo, eremu edo pareko organoren bati atxikita egonik, horren baimena beharko da berak aurrez finkatutako zenbatekoen gainetiko kontratuak egiteko.
- i) Toki-erakundeko zinegotzigo, eremu edo pareko organoren bati atxikita egonik, horren kontrolpean egongo dira eraginkortasunari buruz.

j) Apirilaren 14ko 6/1997 Legean eta aplikagarriak diren estatuko gainerako arauetan estatuko organoei egindako edozein aipamen toki-erakundeko organo eskumendunei egiten zaiela ulertu behar da. Artikulu honetan gobernu-batzarrari egindako aipamenak, batzar hori ez dagoen udalerrietan osoko bilkurari egiten zaizkiola ulertu behar da.

2. Tokiko erakunde autonomoen eta tokiko enpresa-entitate publikoen estatutuetan puntu hauek jaso behar dira:

a) Erakundeko zuzendaritza-organo gorenak zehaztu egin behar dira, bai kide bakarrekoak bai kide anitzekoak, baita haiek izendatzeko modua ere, aurreko paragrafoan xedatutakoa errespetatuz beti, eta administrazio-bidea agortzen duten egintzak eta ebazpenak adierazita.

b) Erakundearen eginkizunak eta eskumenak, erakundeak erabil ditzakeen administrazioko ahal orokorrak adierazita.

c) Enpresa-entitate publikoen kasuan, estatutuetan zehaztu behar da, halaber, zein organoren eskuetan uzten den administrazioko ahalak gauzatzea.

d) Beren helburuak betetzeko izendatutako ondarea, eta erakundea finantzatzeko izango dituen baliabide ekonomikoak.

e) Giza baliabideei, ondareari eta kontratazioari buruzko araubidea.

f) Aurrekontuen, ekonomia-finantzen, kontabilitatearen, kontuhartzailetzaren, finantzen kontrolaren eta eraginkortasunaren kontrolaren araubideak; nolanahi ere, toki-ogasunei buruzko legedian eta lege honetako X. tituluko III. kapituluan xedatutakoarekin bat etorri behar dira.

3. Kasuan kasuko erakunde publikoa benetan jardunean hasi aurretik onartu eta argitaratu behar dira estatutuak.

85 ter artikulua, bere aldetik, merkataritza-sozietateei buruzkoa da:

1. Tokiko merkataritza-sozietateak, edozein dela ere beren izaera juridikoa, ordenamendu juridiko pribatuaz arautuko dira erabat, aurrekontuen, kontabilitatearen, finantzen kontrolaren, eraginkortasunaren kontrolaren eta kontratazioaren araubideak aplikatu behar zaizkien gaietan izan ezik, eta artikulu honetako hurrengo paragrafoan adierazitakoari kalterik eragin gabe.

2. Sozietateak uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginean aurreikusitako moduren bat aukeratu beharko du, eta sorrera-eskrituran behar bezala adieraziko da herri-administrazioek edo haien menpeko sektore publikoko entitateek egin beharreko ekarpena, haiei baitagokie titulartasuna.

3. Estatutuetan zehaztuko da batzar orokorra eta administrazio-kontseilua izendatzeko era eta beren jarduera, baita beren zuzendaritza-organo gorenak ere.

7/1985 Legeak zerbitzu publikoak zeharka kudeatzeko aipatzen dituen moduei dagokienez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak honako hau xedatzen du 277. artikuluan:

Zerbitzu publikoen kudeaketa kontratatzeko modua hauetako edozein izan daiteke:

- a) Kontzesioa; horrela, enpresaburuak arriskua bere gain hartuz kudeatuko du zerbitzua.
- b) Kudeaketa interesatua; horrela, administrazioak eta enpresaburuak kontratuan ezarritako proportzioan jasoko dituzte ustiaketa-aren emaitzak.
- c) Ituna, dena delako zerbitzu publikoaren antzeko beste prestazio batzuk gauzatzen ari den pertsona fisiko edo juridikoarekin.
- d) Ekonomia mistoko sozietatea; administrazioak berez edo erakunde publiko baten bitartez hartzen du parte bertan, pertsona fisiko edo juridikoekin batera.

Araudi orokor horren osagarri gisa, aipatzekoa da Toki Korporazioen Zerbitzu Araudian definitzen diren kudeaketa-moduak. Egungo lege-esparruarekin bat ez datorren guztia indargabetuta geratzen dela ulertzen bada ere, kudeaketa-moduen ezaugarriei buruzko informazioa ematen du.

Honako hau xedatzen du 68. artikulua:

- 1. Organo berezirik gabeko kudeaketa zuzenean, Toki Korporazio interesdunak bere gain hartuko ditu arriskuak, eta bitartekaririk gabe eta berak bakarrik gauzatuko ditu erabakiak hartzeko eta kudeatzeko ahalmenak; zerbitzua langile-taldeko funtzionarioen bidez eta aurrekontu arrunteko funtsez ordaindutako langileen bidez emango du.
- 2. Zerbitzuaren finantza-erregimena aipatutako aurrekontu horren barruan geratuko da.
- 3. Administrazioaile bat izendatu ahal izango da zerbitzurako, langile-taldeko funtzionarioa izango dena; ez du ondasunak kudeatzeko eskumenik izango, ez eta erabakiak hartzekorik ere.

“Zerbitzuaren sortze publikoari” edo tokiko erakunde publikoari dagokionez, honako hau dio 85. artikulua:

Toki Korporazioek nortasun juridiko publikoa emanez gauzatu ahal izango dituzte beren eskumeneko zerbitzuak, honako egoera hauetan:

- a) lege bereziak hala eskatzen duenean;
- b) erosketaren, dohaintzaren edo sortze-xedapenaren bidez, oraingoan sortzaileak hala nahi duelako, partikularrengandik xede jakin batera atxikitako ondasunak erosten direnean; eta
- c) ongintzaren edo kulturaren alorreko eginkizunak edo izaera ekonomikoa dutenak behar bezala gauzatzeko ahal komeni denean.

4.3.- Korporazioak erakunde autonomo baten bidez zuzenean kudeatzeari buruzko araudi espezifikoa

Azterketa Batzordeak zerbitzua Tokiko Erakunde Autonomo forma juridikoaren bidez ematearen aldeko apustua egiten du; zehazki, lehendik dagoen Astarloa Kulturgintza erakunde autonomoaren bidez.

4.3.1.- Tokiko erakunde autonomoak

4.3.1.1. Erakunde autonomoak nortasun juridiko publikoa duten erakundeak dira; hau da, administrazio publikoak dira, eta, beraz, ahalmen publikoak balia ditzakete.

TAOL legeak zehazten du erakunde autonomoen estatutuen oinarrizko edukian gutxieneko eduki gisa jaso behar direla, besteak beste, erakundearen eginkizunak eta eskumenak, eta hark balia ditzakeen ahalmen administratibo orokorrak finkatu behar direla.

TAOLen 85 bis 2.b) artikulua dio erakundearen eginkizunak, eskumenak eta erakundeak erabil ditzakeen ahalmen administratibo orokorrak berariaz jaso behar direla erakundearen estatutuetan.

Esleituta dituzten ahalmen administratibo orokorrak gauzatzean, erakunde autonomoak administrazio-zuzenbidearen mende egongo dira, eta haien egintzak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren kontrolpean geratuko dira.

4.3.1.2. Sorrera eta funtzionamendua

4.3.1.2.1. Sortzea, aldatzea eta kentzea

Udalbatzari bakarrik dagokio akordio bidez erakunde autonomoak sortzea. Hori horrela, TAOLen 85 bis 1.a) artikuluan xedatutakoarekin bat, osoko bilkurari dagokio erakunde autonomoa sortzea, aldatzea eta kentzea, bai eta haren estatutuak onartzea ere.

Beren burua antolatzeko ahalmena baliatuz, toki-erakundeek beren eskumeneko zerbitzuak edo jarduerak eratzeko, antolatzeko, aldatzeko edo kentzeko ahalmen osoa dute. Hortaz, eratutako erakunde autonomoak alda ditzakete; esate baterako, haien eskumen-esparrua zabaldu edo murriztu dezakete, edo haiek kentzea erabaki dezakete, zerbitzu publikoak modu eraginkorrean kudeatzeko erabilgarri izateari uzten badiote. Estatutuetan ez bada berariaz adierazi nola egin behar den, erakundea sortzeko gauzatutako izapide berei jarraiki egin beharko da.

4.3.1.2.2. Estatutuak

4.3.1.2.2.1. Izapidetza

Arau-izaera duela kontuan hartuta, prozedura hori TAOLen 49. artikuluan ordenantzak onesteari buruz xedatutakoarekin bat gauzatu beharko da beti; honako hauek dira funtsezko izapideak:

- a) Osoko bilkurak hasierako onarpena ematea.
- b) Gutxienez 30 egunean jendaurrean jarrita izatea eta interesdunei entzunaldia ematea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.
- c) Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak erabakitzea eta osoko bilkurak behin betiko onarpena ematea.

Inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikoa dela ulertuko da.

Azkenik, arau juridikoei dagokienez, estatutuak indarrean jartzeko dagokion aldizkari ofizialean argitaratu beharko dira, TAOLen 85 bis 3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

4.3.1.2.2.2. Edukia

TAOLen 85 bis 2 artikulua xedatutakoarekin bat, erakunde autonomoen estatutuetan puntu hauek jaso behar dira:

- a) Erakundeko zuzendaritza-organo gorenak zehaztu egin behar dira, bai kide bakarrekoak bai kide anitzekoak, baita haiek izendatzeko modua ere, aurreko paragrafoan xedatutakoa errespetatuz beti, eta administrazio-bidea agortzen duten egintzak eta ebazpenak adierazita. Edonola ere, 85 bis artikulua lehenengo atalean aurreikusitako berezitasunak bete beharko dira; hau da, zuzendaritzako organo gorenaren titularrak izendatzea, populazio handiko udalerrietan zuzendaritza-organotzat jotzea eta zuzendaritza-kontseilu bat izatea.

- b) Erakundearen eginkizunak eta eskumenak, erakundeak erabil ditzakeen administrazioko ahal orokorrak adierazita.

c) Beren helburuak betetzeko izendatutako ondarea, eta erakundea finantzatzeko izango dituen baliabide ekonomikoak. Urtero bidali behar diote beren ondasun eta eskubideen inbentarioa toki-erakundeko zinegotzigo, eremu edo pareko organoari.

d) Giza baliabideei, ondareari eta kontratazioari buruzko araubidea. Zuzendaritzako langileen eta gainerako langileen ordainsari-baldintzak finkatzeko eta aldatzeko, udalbatzak edo gobernu-batzordeak une bakoitzean onartutako arauak bete beharko dira, dagokionaren arabera, eta toki-erakundeko dagokion zinegotzigoak, eremuak edo pareko organoak langile-gastuen bilakaerari eta giza baliabideen kudeaketari buruzko kontrol zorrotzak egingo ditu.

e) Aurrekontuen, ekonomia-finantzen, kontabilitatearen, kontu-hartzailatzaren, finantzen kontrolaren eta eraginkortasunaren kontrolaren araubideak; nolanahi ere, toki-ogasunei buruzko legedian eta TAOlen X. tituluko III. kapituluan xedatutakoarekin bat etorri behar dira.

4.3.1.2.3. Funtzionamendua

4.3.1.2.3.1. Hasiera

Erakunde autonomoak sortzeko eta aldatzeko ahalmena udalek beren buruak antolatzeko eta zerbitzu publikoak nola kudeatu erabakitzeko duten ahalmenaren baitan kokatzen da.

Toki-esparruan, TAOlen 85 bis 3 artikuluekin bat, erakunde autonomia funtzionatzen hasi baino lehen, behar-beharrezkoa da estatutuak onartzea eta argitaratzea.

4.3.1.2.3.2. Administrazio matrizearekiko harremanak

Erakunde autonomoek beren eskumenak kudeatzeko autonomia badute ere, lurraldeko erakundeak tutoretza-ahalmenak izango ditu, jarduera administratiboaren koherentzia bermatze aldera; izan ere, azken batean, lurraldeko erakundearen eskumeneko eta ardurapeko zerbitzuak modu eraginkorrean kudeatzeko tresna bat da erakunde hori.

Hala eta guztiz ere, udalerri bakoitzeko araudi organikoetan, eta, bereziki, erakunde bakoitzaren estatutuetan, finkatuko dira erakunde matrizearekiko tutoretza-harremanak. Azken horrek era askotako eskumenak izan ditzake, hala nola esleitutako baliabideak zuzen erabiltzen direla eta erakundeak bere helburuak betetzen dituela zaintzea, edo erakundearen zuzendaritza-organoak izendatzea eta kentzea.

4.3.1.2.3.3. Antolaketa

4.3.1.2.3.4. Oinarrizko araudia

TAOLek antolaketarekin lotutako honako xedapen hauek jasotzen ditu:

- Alde batetik, erakundeak zuzendaritza-kontseilu bat eduki beharko duela xedatzen du, eta haren osaera estatutuetan zehaztuko dela. Zuzendaritzako kide anitzeko organo gorenaren izango da, eta hark hartuko ditu gai garrantzitsuenei buruzko erabakiak.

TAOLek ez du haren osakerari buruzko jarraibiderik finkatzen, eta ez du ezartzen udalerriko talde politikoen ordezkapenari buruzko betebeharrak edo kuotarik.

TAOLen 85 bis 1.e) artikulua dio zuzendaritzako organo gorenaren –pertsona bakarrekoa– titularra administrazio publikoetako karrerako funtzionarioa edo lan-kontratadun langilea izan behar dela, edo sektore pribatuko langilea, goi-tituluduna edonola ere, eta, bigarren egoeran, bost urtetik gorako lan-esperientzia duena. Populazio handiko udalerrietan, gainera, zuzendaritza-organotzat joko da.

4.3.1.2.3.5. Araubide juridikoa

Atal honetan, langileekin, kontratazioarekin, ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketarekin, ondarearekin, errekurtsoekin eta erreklamazioekin eta ondare-erantzukizunarekin lotutako araubidea azaldu dugu. Gai horiek guztiak administrazio-zuzenbidean finkatuta daude, berezitasun batzuk izan ezik, berezitasun horien xedea ez delarik araubide horretatik urruntzea, baizik eta erakunde autonomoen kudeaketa-autonomia bermatzea. Zentzu horretan, kontratazio-arloan, adibidez, erakundeak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen I. Testu Bateginaren mende geratzen dira guztiz, baina beren kontratazio-eskumenak modu autonomoan gauzatzen dituzte. Era berean, giza baliabideen alorrean, lan-eskaintza publikoak egin ditzakete, eta lanpostuak betetzeko eta langileak hautatzeko beren tresnak kudeatu, besteak beste.

4.3.1.2.3.5.1. Giza baliabideak

Tokiko erakunde autonomoei aplikagarri zaien Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legearen (urriaren 1eko 40/2015) 100. artikulua xedatzen du haietako langileak funtzionarioak edo lan-kontratadun langileak izango direla, eta apirilaren 12ko 7/2007 Legearen eta funtzionario publikoen araudi erregulatzailean eta lan-arloko araudian aurreikusita dagoena bete beharko dutela. Halaber, adierazten du erakundeko zuzendaritza-organoren titularrak, giza baliabideen kudeaketaren arloan, legeria espezifikoak esleitzen dizkion ahalmenak izango dituela.

TAOLen 85 bis artikulua honako gai hauek azpimarratzen ditu erakunde autonomoetako giza baliabideei buruz:

- Ordainsarien baldintzak zehaztu eta aldatzeko, bai zuzendaritza-taldekoenak zein gainerako langileenak, dagokionaren arabera osoko bilkurak edo gobernu-batzarrak hortaz onartutako arauetara egokitu behar da beti.
- Toki-erakundeko zinegotzigo, eremu edo pareko organoen kontrolpean egongo dira zerbitzuak, berariaz langileen gaineko gastuen bilakaerari eta giza baliabideen kudeaketari buruz.

4.3.1.2.3.5.2. Ekonomia- eta aurrekontu-araubidea eta ondare-araubidea

TAOLen 85 bis 2.f) artikulua xedatzen du aurrekontuen, ekonomia-finantzen, kontabilitatearen, kontu-hartzailetzaren, finantzen kontrolaren eta eraginkortasunaren kontrolaren araubidea toki-ogasunei buruzko legedian eta TAOL legearen X. tituluko III. kapituluaren xedatutakoarekin bat etorri behar dela.

Erakunde autonomoen diru-sarrerei buruz, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legeak (urriaren 1eko 40/2015) dio erakunde autonomoen baliabide ekonomikoak honako iturri hauek etorri ahal izango direla:

- a) Beren ondarea osatzen duten ondasunak eta baloreak.
- b) Ondare horren produktuak eta errentak.
- c) Estatuaren aurrekontu orokorrean egin zaizkion zuzkidura espezifikoak.
- d) Administrazioaren edo entitate publikoen eskutik jasotzen dituen transferentzia arruntak edo kapital-transferentziak.
- e) Entitate pribatuen eta partikularren dohaintzak, legatuak, babesak eta bestelako ekarpenak.
- f) Aplikatzen zaizkien xedapenen arabera jasotzeko baimenduta dauden beste baliabide guztiak edo esleitu ahal zaizkien baliabideak.

Aurreikuspen horrek tokiko erakunde autonomoei ere eragiten die; hortaz, oro har, haien sarrera-iturriak dagokion toki-erakundearen aurrekontuetan finkatutako transferentzietatik etorriko dira nagusiki.

Ondare-araubideari dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legearen (urriaren 1eko 40/2015) 101. artikulua xedatzen du Administrazio Publikoaren Ondareari buruzko Legeak (azaroaren 3ko 33/2003) organismo autonomoentzat ezarritakoa izango dela; dena den, haren azken xedapenetatik bigarrenak dioenez, bere agindu guztiak ez dira orokorrean aplikatu beharrekoak edo funtsezkoak.

Orokorrean aplikatzekoak ez diren aginduak dira, adibidez, erakunde publikoen ondasunak eta ondare-eskubideak atxikitzeari eta desatxikitzeari buruzko arauak, horiek Estatuko Administrazioari bakarrik eragiten baitiote. Hala eta guztiz ere, pentsatzekoa da toki-erakundeek ere erabili ahal izango dituztela teknika horiek beren erakunde publikoekin, arlo horretako erkidegoko legediekin eta toki-erakundeek beraiek horri buruz onartutako araudiekin bat.

Toki erakundeei eta haien erakunde autonomoei aplikagarri zaizkien funtsezko xedapenen artetik, azpimarratzekoak dira honako hauek:

- Jabari publikoko ondasunen eta ondare-ondasunen kontzeptu-zehaztapena (5.1 eta 7.1 art.).

- Erakunde autonomoen ondarea osatzen duten ondasunen eta eskubideen inbentarioa egiteko betebeharra; xehetasunez jaso behar da haiek identifikatzeko behar den informazioa, eta zer egoera juridikotan dauden eta zertarako erabiltzen diren jakiteko behar dena (32.1 art.).
- Ondare-inbentarioan, gutxienez, ondasun higiezinak eta haien gaineko benetako eskubideak jaso behar dira (32.4 art.).
- Dagokien erregistroetan jaso beharreko ondasunak eta ondare-eskubideak erregistratzeko betebeharra, horiek jabari publikokoak edo ondarezkoak izanda ere, bai eta erregistro horietan sarbidea izan dezaketen haiei buruzko egintzak eta kontratuak ere. Edonola ere, inskriba daitezkeen errentamenduen inskripzioa hautazkoa izango da, hipoteka-legediaren arabera (36. art.).
- Beren ondarea babesteko, administrazio publikoek honako ahalmen eta eskumen hauek izango dituzte:
 - a) Beren ondarekoak izan daitezkeen ondasunen eta eskubideen egoera ikertzea.
 - b) Beren jabetzeko higiezinak bide administratiboan mugatzea.
 - c) Bidegabeki galdutako ondasunen eta eskubideen jabetza ofizioz berreskuratzea.
 - d) Jabari publikoko higiezinak dituzten pertsonak administrazio-bidearen bidez kaleratzea, hura edukitzea babesten zuen titulua azkendutakoan (41. art.).

4.3.1.2.3.5.3. Kontratazio publikoa

Erakunde autonomoetan, kontratazioa administrazio publikoen kontrataziorako arau orokorren mende dago; hau da, funtsean, SPKLTBren mende, hori baita arlo horretako arau berezia, eta erakunde autonomoak bere aplikazio esparruan hartzen baititu.

4.3.1.2.3.5.4. Errekurtsoak eta erreklamazioak

Erakunde autonomoek emandako egintza eta ebazpen administratiboen aurka, APLn aurreikusitako errekurtso administratiboak aurkez daitezke. Halaber, erakunde autonomoek Zuzenbide Zibilari edo lan-zuzenbideari jarraikiz hartutako erabakien aurka, aurretiko erreklamazioak jar daitezke bide judizial zibiletik edo lanekotik, eta erakunde autonomoaren organo gorenak ebatziko ditu, haren estatutuetan eskumena dagokion lurralde-erakundearen esku utzi ez bada.

4.4.- Iraunkortasuna eta eraginkortasuna

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (TAOL; apirilaren 2ko 7/1985) 85.2 artikuluari emandako idazketatik ondorioztatzen da lehentasuna ematen zaiela toki-erakundeak berak edo tokiko erakunde autonomoak zuzenean kudeatzea, kapital sozial publikoa duen tokiko enpresa-erakunde publiko baten bidez edo tokiko merkataritza-sozietate baten bidez zuzenean kudeatzearen gainetik.

Izan ere, 85.2.a) artikulua azken paragrafoak honako hau dio: *xede horrekin landutako justifikazio-memoria baten bidez, a) eta b) idatzi-zatietan xedatutako moduak baino jasagarriagoak eta eraginkorragoak direla egiaztatzen denean bakarrik erabili ahal izango dira c) eta d) idatzi-zatietan aurreikusitako moduak, eta, horretarako, errentagarritasun ekonomikoari eta inbertsioa berreskuratzeari dagozkion irizpideak hartu beharko dira kontuan*. Gainera, azken bi modalitateetan, egindako proposamenen finantza-iraunkortasuna baloratuko duen justifikazio-memoria eta esku-hartzearen txostena jaso behar dira espedientean. Irizpide horren bidez, legegileek lortu nahi dute pertsona juridikoak gehiegi ez ugaritzea, horrek ez dielako finantza-iraunkortasunik ematen tokiko eskumeneko zerbitzuei.

Hortaz, memorian, araudi berriaren eskakizunekin bat, zerbitzuaren kostua, haren errentagarritasuna eta inbertsioaren derrigorrezko berreskurapena egiaztatu behar dira. Hori guztia jasotako txosten eta laguntza teknikoekin bat; era berean, kontu-hartzaileak horiei buruzko iritzia eman beharko du, udalbatzaren esku jarriko duen amaierako txosten moduko baten bidez. Dena den, akordio espezifikoa ere derrigorrean argitaratu beharko da, eta izapide horretan ere errekursoak eskaini beharko dira.

Aldiz, erakundeak berak edo tokiko erakunde autonomo batek kudeatzea erabakiz gero, ez dago modu horren iraunkortasuna eta eraginkortasuna justifikatu beharrik.

Dena den, modu eskematikoan besterik ez bada ere, aurreztutako proposamena arrazoitzen duten alderdiak aipatu behar dira.

Ekonomiaren ikuspegi hutsetik, ez da aldaketa kuantitatiborik gertatzen gastuen kapituluan. Aldaketa bakarrak hauek dira: alde batetik, gastu txikiagoa egongo da administrazio-kontseiluko kideen dieten kapituluan, horiek desagertu egiten direlako; eta, beste batetik, sozietatearen auditoretzarekin, notariotzarekin eta erregistroarekin lotutako gastuak desagertzen dira.

Eraginkortasunarekin ikuspegitik, zerbitzuaren kudeaketa zinegotzigo baten eta Astarloa Kulturgintza erakunde autonomoko kontseilu baten esku uzten da.

Zehaztu behar da udal-aurrekontuan gastuaren erabilera txikiagotu egiten dela, azpiegituraren alokairu-gastuak eta horiei dagokien BEZa ordaintzeari utziko zaiolako, baina, era berean, jardueraren diru-sarrerak neurri berean murriztuko dira.

4.5.- Kudeaketa-moduaren aldaketa gauzatzea.

Zerbitzua Astarloa Kulturgintza erakunde autonomoan sartzeko erakunde autonomo horren estatutuak aldatu beharko dira:

a. Erakunde autonomoaren estatutuak aldatzea

Astarloa Kulturgintza erakundearen estatutuen 3. artikulua honako hau xedatzen du:

3. artikulua. Astarloa Kulturgintza, zerbitzu publiko izateko bokazioa duen erakundea da, eta hiru esparrutan banatuta du bere xedea:

- Museoa: Durangoko herritarren eta ingurukoen zerbitzura dago eta bere helburua da gizakiaren testigantza materialak eskuratzea, zaintzea, ikertzea, ezagutzera ematea eta erakustea nahi duenak aztertu, ikasi eta disfrutatu dezan. Honetarako komunikazio-era ezberdinak erabiltzen ditu eta material egokiak ere bai. Halaber, hasi berriak zein ospetsuak diren bertako eta kanpoko artisten lanak jartzen ditu herritarren esku erakusketen bidez, batzuk aldi baterakoak eta beste batzuk egonkorak. Honetarako guztietarako, Arte eta Historia arloetan adituak direnen aholkuak jasotzen ditu.
- San Agustín Kultur Gunean arte eszeniko profesionalak ematen dira ezagutzera (antzerkia, musika eta dantza). Programazio iraunkor baten bidez interes kulturalako irizpideak erabiltzen dira herritarren egiten zaien kultur eskaintza osatzeko. Era berean, erakusleia da herriko elkarteetan lanak plazaratzeko.
- Durangoko Udal Liburutegia, Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalan sartuta dago eta antzeko beste erakunde batzuekin ere aritzen da elkarlanean. Bere helburu nagusiak dira: o Informazio eta kultur ekoizpenen ezagupena bermatzea o Etengabeko informazioaren alde eta gizarteratzearen alde egitea o Gune bat eskaintzea kultur ekintzetan parte hartu ahal izateko eta irakurketa sustatzeko.

Laugarren puntu bat gehitu beharko litzateke:

- *Landakogunea: Hauek dira xede nagusiak: Landako erabilera anitzeko eraikina eta hari atxikitako gainerako lokalak osoki kudeatzea eta ustiatzea. Azokak sustatzea eta kudeatzea, lan-esparrukoak ez diren jarduera ekonomikoak gauzatzeko laguntza ematea eta bere jabetzako higiezinak lagatzea eta alokatzea. Eta Durangoko elkarte-sareari lagatzea eta herritarren esku jartzea.*

Estatutuen 25. artikulua, bere aldetik, honako hau xedatzen du:

1. Osagai hauek izango ditu Erakunde Autonomoaren ondareak: batetik, Udalak Organismoari bere helburuak betetzeko atxikitzen dizkion ondasunak, eta, bestetik Organismoak berak bere funtsekin ordainduta eskuratutakoak.

2. Hauek dira Erakunde Autonomoari atxikitako ondasun higiezinak:

- *Arte eta Historia Museoa, San Agustinalde 16an dagoena.*
- *Kurutze Santuaren ermita.*
- *San Agustin Kultur Gunea, San Agustinalde 12an dagoena.*
- *Udal Liburutegia.*

Beste puntu bat gehitu beharko litzateke:

- *Landakogunea eta hari atxikitako lokalak.*

b. Estatutuak aldatzeko prozedura.

Erakunde Autonomoen araudia, ia osoki, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) dago jasota; izan ere, 1986ko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua arautzen duenak, toki-araubideko legedira igortzen gaitu 132., 133. eta 139. artikuluetan.

85. artikulua dio tokiko erakunde autonomoa tokiko eskumeneko zerbitzu publikoak zuzenean emateko erakunde instrumental bat dela. 85 bis artikulua, sortzeari eta konfigurazioari dagokionez, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Jardueraren apirilaren 14ko 6/1997 Legea igortzen gaitu, eta, zehazki, haren 45.etik 52.era eta 53.etik 60.era bitarteko artikuluetara. Zenbait berezitasun ere finkatzen ditu; laburbilduta, eta gai honi dagokionez, honako hauek:

Toki-erakundeko osoko bilkurari dagokio erakunde eta entitate horiek sortzea, aldatzea, bategitea eta kentzea, eta berak onartuko ditu haien estatutuak ere.

Kasuan kasuko erakunde publikoa benetan jardunean hasi aurretik, Udalbatzak estatutuak onartu behar ditu, eta argitaratu egin behar dira.

Egiten den aldaketa-proposamena honako hau da: estatutuen 3. artikuluan jasotako erakundearen xedea zabaltzea.

Prozedura, berariazko araudirik ez dagoenez, honen arabera gauzatuko da (TAOLen 49. eta 70. artikulua):

- Udalbatzak hasierako onespena ematea, gehiengo soilez.
- Gutxienez 30 egunean jendaurrean jarrita izatea eta interesdunei entzunaldia ematea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten (iragarkia udalaren ediktu-taulan egongo da ikusgai, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da).
- Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak erabakitzea eta osoko bilkurak behin betiko onarpena ematea. Hasierako akordioan adieraz daiteke, erreklamaziorik aurkeztu ezean, ordenantza edo erregelamendua behin betiko onartutzat joko dela automatikoki.
- Akordioa eta ordenantzaren edo erregelamenduaren testu osoa probintziako aldizkari ofizialean argitaratzea.

3.- DIRU-SARRERAK: emandako zerbitzuen ordaina

a. Emandako zerbitzuen ordaina

Ezaugarri orokorrak

9/2005 Foru Arauak tasak eta prezio publikoak bereizten ditu (2.1.b) eta e) artikulua), bi irizpide hauei jarraikiz: alde batetik, erabiltzaileek zerbitzua erabiltzeko erregimena, erabiltzaileek haiek jasotzea beharrezkoa den ala ez kontuan hartuta (*koaktibitate*-oharra); lehenengo egoeran, tasa bat izango da, eta bigarrenean, berriz, prezio publikoa. Beste alde batetik, tarifa mota bat edo beste bereizten da, zerbitzuak sektore pribatuak ematen ez dituen (*esklusibotasun*-oharra edo monopolioa, zuzenbidezkoa edo egitatezkoa) edo zerbitzu pribatuak ere ematen dituen kontuan hartuta; lehenengo egoeran, tasa dela esaten dugu, eta, bigarrenean, berriz, prezio publikoa.

9/2005 Foru Arauaren 21. artikulua honako hau xedatzen du:

Toki erakundeek, foru arau honetan ezarritakoaren arabera, tasak ezarri ahal izango dituzte tokiko herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiteagatik, edota zergapekoei dagozkien edo haientzat eragin nahiz onura berezia dakarten zerbitzu edo jarduerak zuzenbide publikoko araubidean egiteagatik, baldin eta zerbitzu edo jarduera horiek ez badira zergapekoek beraiek borondatez eskatu edo jasotakoak, edota sektore pribatuak halako zerbitzu edo jarduerarik egiten ez badu.

Zerbitzuak edo jarduerak zuzenbide publikoko araubidean ematen direla edo gauzatzen direla ulertuko da administrazio-legedian zerbitzu publikoa kudeatzeko aurreikusitako moduetako edozeinen bidez gauzatzen bada, eta haren titulartasuna erakunde publiko batena bada.

Prezio publikoei buruz, 9/2005 Foru Arauaren 44. artikulua honako hau xedatzen du: *Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeek prezio publikoak ezarri ahal izango dituzte zerbitzuak emateagatik eta udal eskumeneko jarduerak egiteagatik, beti ere foru arau honen 21. artikuluko 1. atalean zehaztutako inguruabarretariko bat ere ematen ez bada.*

Dena den, zuzenbide publikoko araubidean ematen duen edo gauzatzen duen zerbitzuagatik edo jardueragatik toki-administrazio kudeatzaileak jasotzen duen ordaina dira tasa eta prezio publikoa. Hori xedatzen du 9/2005 Foru Arauaren 21. artikulua tasentzat.

EKITALDI-ARETOA

FITXA TEKNIKOA

Edukiera: 100 pertsona

Bitarteko teknikoak:

Megafonia finkoa + esku-mikrofono bat + paparreko mikrofono bat.

Proiektzio-pantaila motorduna

Datu-proiektorea.

Gardenkien eta opakoen eretroproiektorea.

Bat-bateko itzulpena: kabina eta entzungailuak

Bideo- eta audio-grabazioa

Mahai-ordenagailua, Internet konexioa duena

Telefono-linea.

Internet konexioa.

Tarifak (%21eko BEZ sartu gabe)

Jardunaldi osoz ekitaldi-aretoa alokatzea	450 €
Jardunaldi erdiz ekitaldi-aretoa alokatzea	275 €
Datu-proiektorea	50 €
Mahai-ordenagailua, Internet konexioa duena	50 €
Gardenki-proiektorea	25 €
Bat-bateko itzulpenerako ekipamendua, 20 entzungailurekin	320 €

Grabazio digitala + teknikaria	120 €
Telefono-linea	25 €
Internet konexioa	30 €

Ekitaldi-aretoaren alokairuak honako hauek hartzen ditu: megafonia finkoa eta haririk gabekoa, argiztapena eta garbiketa eta langile teknikoen laguntza.

Beharpen bereziak aretoan eta bitarteko teknikoetan:

%20ko beherapena Landako Elkartegian dauden enpresentzat.

LANDAKO GUNEA

Pabilioi osoa (4.200 m2)

1go eguna	2.100 e	
2. eguna	1.995 e	%5 dtua.
3. eguna	1.890 e	%10 dtua
4. eguna	1.785 e	%15 dtua
5. eguna	1.680 e	% 20 dtua
6. eguna	1.575 e	% 25 dtua
7. eguna	1.470 e	% 30 dtua
8. eguna	1.365 e	% 35 dtua
9. eguna	1.260 e	% 40 dtua
10. eguna	1.155 e	% 45 dtua
11. eguna	1.050 e	% 50 dtua
Muntaia eta desmuntaia egun bakoitzeko	1.260 e	
Egun erdia	1.260 e	

1 modula (1.710 m2)

1. eguna	1.112,5 e	
2. eguna	1.056,88 e	%5 dtua.
3. eguna	1.001,25 e	%10 dtua
4. eguna	945,63 e	%15 dtua
5. eguna	890 e	% 20 dtua
6. eguna	834,38 e	% 25 dtua
7. eguna	778,75 e	% 30 dtua

Pabellón completo (4.200 m2)

1er día	2.100 e	
2do día	1.995 e	5% dto
3er día	1.890 e	10% dto
4 día	1.785 e	15 % dto
5 día	1.680 e	20% dto
6 día	1.575 e	25% dto
7 día	1.470 e	30% dto
8 día	1.365 e	35 % dto
9 día	1.260 e	40 % dto
10 día	1.155 e	45 % dto
11 día	1.050 e	50 % dto
Por día de montaje y desmontaje	1.260 e	
Medio día	1.260 e	

Módulo 1 (1.710 m2)

1er día	1.112,5 e	
2do día	1.056,88 e	5% dto
3er día	1.001,25 e	10% dto
4 día	945,63 e	15 % dto
5 día	890 e	20% dto
6 día	834,38 e	25% dto
7 día	778,75 e	30% dto

8. eguna	723,13 e	% 35 dtua
9. eguna	667,5 e	% 40 dtua
10. eguna	611,88 e	% 45 dtua
11. eguna	556,25 e	% 50 dtua
Muntaia eta desmuntaia egun bakoitzeko	667,50 e	
Egun erdia	667,50 e	

2 modulua (1.710 m2)

1. eguna	1.112,5 e	
2. eguna	1.056,88 e	%5 dtua.
3. eguna	1.001,25 e	%10 dtua
4. eguna	945,63 e	%15 dtua
5. eguna	890 e	% 20 dtua
6. eguna	834,38 e	% 25 dtua
7. eguna	778,75 e	% 30 dtua
8. eguna	723,13 e	% 35 dtua
9. eguna	667,5 e	% 40 dtua
10. eguna	611,88 e	% 45 dtua
11. eguna	556,25 e	% 50 dtua
Muntaia eta desmuntaia egun bakoitzeko	667,50 e	
Egun erdia	667,50 e	

1 eta 2 moduluak (3.420 m2)

8 día	723,13 e	35 % dto
9 día	667,5 e	40 % dto
10 día	611,88 e	45 % dto
11 día	556,25 e	50 % dto
Por día de montaje y desmontaje	667,50 e	
Medio día	667,50 e	

Módulo 2 (1.710 m2)

1er día	1.112,5 e	
2do día	1.056,88 e	5% dto
3er día	1.001,25 e	10% dto
4 día	945,63 e	15 % dto
5 día	890 e	20% dto
6 día	834,38 e	25% dto
7 día	778,75 e	30% dto
8 día	723,13 e	35 % dto
9 día	667,5 e	40 % dto
10 día	611,88 e	45 % dto
11 día	556,25 e	50 % dto
Por día de montaje y desmontaje	667,50 e	
Medio día	667,50 e	

Módulos 1 y 2 (3.420 m2)

1. eguna	2.000e		1er día	2.000e	
2. eguna	1.900 e	%5 dtua.	2do día	1.900 e	5% dto
3. eguna	1.800 e	%10 dtua	3er día	1.800 e	10% dto
4. eguna	1.700 e	%15 dtua	4 día	1.700 e	15 % dto
5. eguna	1.600 e	% 20 dtua	5 día	1.600 e	20% dto
6. eguna	1.500 e	% 25 dtua	6 día	1.500 e	25% dto
7. eguna	1.400 e	% 30 dtua	7 día	1.400 e	30% dto
8. eguna	1.300 e	% 35 dtua	8 día	1.300 e	35 % dto
9. eguna	1.200 e	% 40 dtua	9 día	1.200 e	40 % dto
10. eguna	1.100 e	% 45 dtua	10 día	1.100 e	45 % dto
11. eguna	1.000 e	% 50 dtua	11 día	1.000 e	50 % dto
Muntaia eta desmuntaia egun bakoitzeko		1.200 e	Por día de montaje y desmontaje		1.200 e
Egun erdia		1.200 e	Medio día		1.200 e

2 eta 3 moduluak (2.490 m2)			Módulos 2 y 3 (2.490 m2)		
1. eguna	1.500 e		1er día	1.500 e	
2. eguna	1.425 e	%5 dtua.	2do día	1.425 e	5% dto
3. eguna	1.350 e	%10 dtua	3er día	1.350 e	10% dto
4. eguna	1.275 e	%15 dtua	4 día	1.275 e	15 % dto
5. eguna	1.200 e	% 20 dtua	5 día	1.200 e	20% dto
6. eguna	1.125 e	% 25 dtua	6 día	1.125 e	25% dto
7. eguna	1.050 e	% 30 dtua	7 día	1.050 e	30% dto
8. eguna	975 e	% 35 dtua	8 día	975 e	35 % dto
9. eguna	900 e	% 40 dtua	9 día	900 e	40 % dto
10. eguna	825 e	% 45 dtua	10 día	825 e	45 % dto
11. eguna	750 e	% 50 dtua	11 día	750 e	50 % dto
Muntaia eta desmuntaia egun bakoitzeko		900 e	Por día de montaje y desmontaje		900 e

Egun erdia	900 e	

3 modulua (780 m2)

1. eguna	585 e	
2. eguna	555,75 e	%5 dtua
3. eguna	526,5 e	%10 dtua
4. eguna	497,25 e	%15 dtua
5. eguna	468 e	% 20 dtua
6. eguna	438,75 e	% 25 dtua
7. eguna	409,5 e	% 30 dtua
8. eguna	380,25 e	% 35 dtua
9. eguna	351 e	% 40 dtua
10. eguna	321,75 e	% 45 dtua
11. eguna	292,5 e	% 50 dtua
Muntaia eta desmuntaia egun bakoitzeko		351 e
Egun erdia	351 e	

Medio día	900 e	

Módulo 3 (780 m2)

1er día	585 e	
2do día	555,75 e	5% dto
3er día	526,5 e	10% dto
4 día	497,25 e	15 % dto
5 día	468 e	20% dto
6 día	438,75 e	25% dto
7 día	409,5 e	30% dto
8 día	380,25 e	35 % dto
9 día	351 e	40 % dto
10 día	321,75 e	45 % dto
11 día	292,5 e	50 % dto
Por día de montaje y desmontaje		351 e
Medio día	351 e	

Prezioan ondorengo zerbitzuak barneraturik daude:
Iluminazioa
Garbiketa orokorra: LESAk azoka-barrutiko garbiketa orokorrak arduratuko da, hau da, denak erabiltzen duten esparruak, komunetaz, eskailburuak, paperontzi eta hautsontziez,

En el precio están incluidos los siguientes servicios:
Iluminación
Limpieza: LESA cuidará de la limpieza general del recinto, es decir, de las zonas comunes, baños, pasillos, descansillos, recogida de papeleras y ceniceros, piso del pabellón.

pabilioiaren zorua. Zaintza orokorra Ura (kontsumoa eta instalazioa). Mantenimendu teknikaria. Garajea: 100 plaza gehienez. Argiketariaren eskulana. Ez da sartzen Instalazio elektrikoaren ziurtagiriaren tramitazioa ezta Industrian eta Iberdrolan aurkeztu beharreko dokumentazioa, beharrezkoa den potentziaren araberakoa ezberdina delarik. Matxuraren bat izanez gero, Landakoren ardura izango da konponketa.	Seguridad general Agua (consumo e instalación). Técnico de mantenimiento. Garaje: 100 plazas máximo. Mano de obra del electricista. No está incluida la tramitación del certificado de instalación eléctrica ni la documentación necesaria a presentar en Industria e Iberdrola que difiere de la potencia que se necesite. En caso de avería, Landako correría con el costo.	
---	--	--

2016an egindako 44 ekitaldien artetik, 28 Udalak antolatu edo babestu ditu; hau da, diru-sarreraren %63,63 udal-aurrekontutik etorri dira.

HILABETEA	ANTOLATZAILEA BULTZATZAILEA	/
Urtarrila	UDALA	
Urtarrila	UDALA	
Urtarrila	UDALA	
Apirila	UDALA	
Maiatza	UDALA	
Otsaila	UDALA	
Otsaila	PRIBATUA	
Otsaila	PRIBATUA	
Martxoa	PRIBATUA	
Martxoa	PRIBATUA	
Urtarrila	UDALA	
Otsaila	UDALA	
Otsaila	UDALA	
martxoa	UDALA	
apirila	UDALA	
Maiatza	UDALA	
Apirila	UDALA	
Apirila	UDALA	
Apirila-maiatza	PRIBATUA	
Maiatza	PRIBATUA	
Maiatza	UDALA	
Maiatza	PRIBATUA	
Maiatza	UDALA	
Maiatza	PRIBATUA	
Ekaina	UDALA	
Ekaina	PRIBATUA	
Ekaina	PRIBATUA	
Ekaina	PRIBATUA	
Uztaila	UDALA	
Uztaila	UDALA	
Uztaila	PRIBATUA	
Iraila	PRIBATUA	
Iraila	UDALA	

Urria	UDALA
Urria	UDALA
Urria	UDALA
Azaroa	PRIBATUA
Azaroa	UDALA
Azaroa	PRIBATUA
Abendua	PRIBATUA
Abendua	UDALA
Abendua	UDALA
Abendua	UDALA
Abendua	UDALA

2017 ekitaldian, memoria hau idazteko unera arte, honako hau da programazioa/aurreikuspena:

HILABETEA	ANTOLATZAILEA BULTZATZAILEA	/
Urtarrila	UDALA	
Urtarrila	UDALA	
Urtarrila	UDALA	
Otsaila	UDALA	
Otsaila	UDALA	
Otsaila	PRIBATUA	
Otsaila	PRIBATUA	
Otsaila	UDALA	
Martxoa	UDALA	
Apirila	UDALA	
Maiatza	UDALA	
Otsaila	UDALA	
Martxoa	PRIBATUA	
Martxoa	PRIBATUA	
Martxoa	PRIBATUA	
Martxoa	UDALA	
Apirila	UDALA	
Maiatza	UDALA	

Apirila	PRIBATUA
Apirila	UDALA
Maiatza	UDALA
Maiatza	PRIBATUA
Maiatza	PRIBATUA
Maiatza	PRIBATUA
Ekaina	PRIBATUA
Ekaina	UDALA
Uztaila	UDALA
Iraila	UDALA
Urria	UDALA
Urria	UDALA
Azaroa	PRIBATUA
Abendua	PRIBATUA
Abendua	UDALA
Abendua	UDALA
Abendua	UDALA
Abendua	UDALA

Txosten hau 2017an idatzi zen unean programatuta zeuden 36 ekitaldietatik, 24 Udalak antolatutakoak edo babestutakoak ziren; hau da, diru-sarreraren % 66,66 udal-aurrekontutik etorri zen.

Proposatzen den kudeaketa-moduak, beste batzuen artean, udal-kutxeri aurrezpena ekarriko dio, baina, kontrako aldean, jarduerak sarrera gutxiago izango ditu; beraz, erakunde autonomoaren konturako gastuek berdin jarraituko dute.

Hasiera batean, egungo tarifekin jarraitzea proposatzen da, tasa eta prezio publikoen modalitatean, bai Landakogunean eskaintzen diren jarduerari dagokienez, bai eta Udalaren transferentzietan dagokienez ere. Erakunde Autonomoak aztertuko du horiei eustea edo aldatzea komeni den.

DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría


APARKALEKUA

0,74€/ordu 0,012€/minutu 16,00€, asteko abonamenduaren prezioa 50,00€, hileko abonamenduaren prezioa

DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría



2014	ENERO	FEBRERO	MARZO	ABRIL	MAYO	JUNIO	JULIO	SEPTIEMBR	OCTUBRE	NOVIEMBR	DICIEMBRE	TOTAL 2014
METALICO	4.707,35 €	6.717,53 €	5.100,38 €	5.092,97 €	4.775,21 €	5.392,27 €	3.800,17 €	5.194,25 €	6.534,65 €	5.661,82 €	6.680,34 €	59.656,9
TARJETAS	1.778,23 €	1.925,53 €	1.763,51 €	2.271,95 €	1.497,77 €	2.442,35 €	889,75 €	2.233,93 €	2.340,57 €	2.142,02 €	2.338,10 €	21.623,7
ABONADOS	610,75 €	610,75 €	610,75 €	610,75 €	610,75 €	610,75 €	576,82 €	542,89 €	576,82 €	644,68 €	576,82 €	6.582,53
TOTAL	7.096,33 €	9.253,81 €	7.474,64 €	7.975,67 €	6.883,73 €	8.445,37 €	5.266,74 €	7.971,07 €	9.452,04 €	8.448,52 €	9.595,26 €	87.863,1
2015	TOTAL 2015											
METALICO	5.880,37 €	5.105,58 €	8.545,64 €	5.034,05 €	7.034,44 €	7.678,51 €	4.374,18 €	5.769,63 €	6.790,54 €	7.351,69 €	6.270,91 €	69.835,5
TARJETAS	1.577,73 €	2.174,37 €	2.683,33 €	2.055,65 €	3.086,28 €	3.043,31 €	1.612,84 €	2.448,26 €	2.910,69 €	3.216,41 €	3.281,77 €	28.090,6
ABONADOS	508,96 €	475,03 €	578,48 €	578,48 €	578,50 €	619,82 €	578,50 €	537,18 €	578,50 €	578,50 €	578,50 €	6.190,45
TOTAL	7.967,06 €	7.754,98 €	11.807,45 €	7.668,18 €	10.699,22 €	11.341,64 €	6.565,52 €	8.755,07 €	10.279,73 €	11.146,60 €	10.131,18 €	104.116,
2016	TOTAL 2016											
METALICO	7.049,21 €	6.736,69 €	7.807,89 €	6.638,02 €	8.832,48 €	7.383,18 €	4.750,46 €	5.866,86 €	7.330,54 €	9.644,59 €	7.116,57 €	79.156,4
TARJETAS	2.698,85 €	3.052,19 €	3.616,57 €	3.391,49 €	3.172,94 €	3.774,82 €	1.905,00 €	2.419,55 €	4.077,43 €	3.472,98 €	2.551,24 €	34.133,0
ABONADOS	578,51 €	585,39 €	1.029,83 €	578,50 €	578,50 €	578,50 €	537,18 €	537,18 €	537,18 €	537,18 €	537,18 €	6.615,13
TOTAL	10.326,57 €	10.374,27 €	12.454,29 €	10.608,01 €	12.583,92 €	11.736,50 €	7.192,64 €	8.823,59 €	11.945,15 €	13.654,75 €	10.204,99 €	119.904,
2017	TOTAL 2017											
METALICO	8.329,21 €	8.576,29 €	8.846,45 €	4.998,76 €	10.000,13 €							40.750,84 €
TARJETAS	3.813,52 €	4.221,24 €	3.502,51 €	855,58 €	6.114,58 €							18.507,43 €
ABONADOS	537,18 €	537,18 €	454,54 €	500,00 €	500,00 €							2.528,90 €
TICKETS			589,54 €									589,54 €
TOTAL	12.679,91 €	13.334,71 €	13.393,04 €	6.354,34 €	16.614,71 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	62.376,7

6.- ZERBITZURA ATXIKITAKO LANGILEENTZAKO BALDINTZA BEREZIAK

Langileen Estatutuaren Legearen testuategia onartzen duen Legegintzako Errege Dekretuaren (urriaren 23ko 2/2015) 44. artikulua honako hau xedatzen du: *enpresa baten, lantoki baten edo produkzio-unitate autonomo baten titulartasuna aldatuta ere, horrek, besterik gabe, ez du ekarriko bertako langileekiko lan-harremana azkentzea; izan ere, enpresaburu berriak aurrekoak lan-arloa*

eta Gizarte Segurantzaren dela-eta zituen eskubide betebeharrak subrogatuko ditu, horien artean direla pentsioen inguruko betebeharrak, beti ere gai horren inguruko araudi berezian esaten dena kontuan izanda. Orokorrean, lagatzaileak babes sozial osagarriaren arloan bereganatutako betebeharrak guztiak subrogatuko ditu enpresaburu berriak. Eta bigarren atalak honako hau dio: artikulua honetan aurreikusitakoari dagokionez, enpresaren ondorengotza dagoela ulertuko da eskualdatutako erakunde ekonomikoak bere izateko moduari eusten badiot, hau da, oinarritzko jardueraren ekonomiko bat edo jardueraren ekonomiko osagarri bat aurrera eramateko baliabide antolatuei eusten baldin badie.

Auzitegi Gorenak zenbait epaitan adierazi du (1990eko martxoaren 13ko epaia, 1994ko otsailaren 23ko epaia eta 1995eko martxoaren 17ko epaia) aipatutako agindu horrek lanpostuaren egonkortasuna bermatzeko bi elementuren beharra finkatzen duela: bata subjektiboa, transmisio zuzena edo lehengo enpresaria beste batez ordeztzea, ordezkapena bitarteko hirugarren baten bidez egiten bada ere. Izan ere, garrantzitsua da aurreko enpresariak eta berriak enpresajardueraren ardura hartzea beren gain. Eta, bestea, objektiboa: enpresaren funtsezko elementu guztiak benenetan ematea, haren xedea den jardueraren nagusia gauzatzen jarraitu ahal izateko, edo, beste hitz batzuetan esanda, enpresak unitate gisa jarraitzea, teknika- eta antolaketa-faktoreei eta ondareari dagokionez. Dena den, azken horiei buruzko baldintza arindu edo zehaztu egin dute Europako Erkidegoen Justizia Auzitegiaren 1995eko irailaren 19ko epaiak eta Luxenburgoko Europako Erkidegoen Justizia Auzitegiaren (Seigarren Aretoa) 2002ko urtarrilaren 24ko epaiak, EEJA 2002\29. Horiek, 1977ko otsailaren 14ko 77/78 Zuzentaraua aplikatuz, ulertzen dute “eragiketa eztabaidagarria osatzen duten egitate-baldintza guztiak hartu behar direla kontuan; besteak beste, eta bereziki, zer motatako enpresa edo jardueraren zentroa den, ondasun materialen (hala nola eraikinak eta ondasun higigarriak) transmisiorik egon den ala ez, ondasun ukiezinen balioa transmisio-unean, enpresari berriak langile gehienek gaineko ardura hartzen duen ala ez, bezeroak transmititu diren ala ez, bai eta transmisioaren aurretik eta ondoren gauzatzen diren jardueren arteko antzekotasuna eta jardueraren horien balizko etenaldiaren iraupena ere. Edonola ere, elementu horiek guztiak multzo osoaren ebaluaziorako alderdi partzialak besterik ez dira, eta, beraz, ezin dira bereizita aztertu” eta, era berean, “funtsean esku-lanean oinarritzen diren jardueren sektore jakin batzuetan, modu iraunkorrean jardueraren komun bat gauzatzen duten langileen talde bat entitate ekonomikoa izan daiteke. Hortaz, entitate horrek bere nortasunari eutsi diezaioke transmititu ondoren ere, nahiz eta enpresari berriak dagokion jarduerarekin jarraitu baino gehiago egin, adibidez bere aurrekoak lan horretara bideratzen zituen langileen zati handi batez (kopuruari eta gaitasunei dagokienez) arduratzea (Süzen epaia [EEJA 1997, 45], 21. atala). Garbiketa-enpresa bati dagokionez, denbora luzez jardueraren komun batean jardun duen langileen talde antolatu bat entitate ekonomikoa izan daiteke, beste produkzio-faktorerik ez dagoenean (Hernández Vidal eta beste batzuk epaia [EEJA 1998, 308], 27. atala; doktrina hori jasotzen du, ez kritikatu gabe, Auzitegi Gorenaren Epaiak (Lan-arloko Sala), 2004ko urriaren 29koak.

Beste alde batetik, 98/50/CE Zuzentarauak, 1998ko ekainaren 29koak, 77/187/CEE Zuzentaria aldatzen duenak, transmisioaren kontzeptu generikoa argitu du, erkidegoko araudiak arlo horretan duen esanahiari buruzko zehaztapen batzuk egin baititu; beraz, ez da aurreko Zuzentaria aldatu, argitu baizik. Horrek guztiak eragina du enpresen eta administrazio publikoen aplikazio-modalitateetan, martxoaren 12ko 2001/23/CE Zuzentarauak ordeztutako Zuzentaria.

Laburbilduz, Auzitegi Gorenaren (Lan-arloko Sala) 2005eko apirilaren 4ko Epaiak (doktrina bateratzeko kasazio-errekurtsua, 2423/2003 zk.) dioen eran, enpresa-ondorengotza egon dadin, beharrezkoa da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen artean ondare-aktiboa transmititzea. Bestela, doktrina horren arabera, ondorengotza hori aplikagarri den estatutuetako hitzarmen kolektiboak ezartzen duelako bakarrik gertatzen da, edo, muga jakin batzuekin, emakidaren baldintza-orriak agintzen duenean, doktrinaren sektore batek Europako Erkidegoen Justizia Auzitegiak emandako jurisprudentziaren desbiderapentzat jotzen zuena hartuz (Schmidt epaia, 1994ko apirilaren 14koa, Süzen Epaiak, 1997ko martxoaren 11koak, zuzendutakoa, honako hau baieztatzen zuena: *kontratuaren xede den jarduera baten ondorengotza hutsa ez da nahikoa enpresa-transmisioa gertatu dela jotzeko, bi enpresarien artean ez bada aktibo materialaren edo ukiezinaren lagapen bat egiten*). Egia esan, beste elementu bat ere gehitzen zuen, honako hau esatearekin bat: *enpresa-jarduera esku-lanean oinarritzen bada nagusiki, nortasunari eutsi ahal izango zaio transmisioaren ostean, enpresari berria, jarduerarekin jarraitzeaz gainera, haren aurrekoak lan horretara bideratzen zuen langileen zati handi batez arduratzen bada (kopuruaren eta gaitasunen ikuspegitik)*. Tesi horrekin bat egin zuten Hernández Vidalen eta Sánchez Hídalgoen 1998ko abenduaren 10eko epaiek, eta bereziki adierazi zen Temco epaian, 2002ko urtarrilaren 24koan, eta Sodexho epaian, 2003ko azaroaren 20koan, elementu osagarri hori eraginkor egin baitzen, eta ondorengotza ezarri baitzen enpresari berria lagatzailearen langileez arduratzen zenean. Auzitegi Gorenaren ebazpen horiek kontuan hartuta, aurreko doktrina aldatu behar izan zen; aldaketa hori iragarrita zegoen 2004ko urriaren 20ko epaietan, eta urte eta hil bereko 27koan jaso zen. Hortaz, doktrina zuzendu da: ondorengotza da ez bakarrik ondare-aktiboen transmisioa dagoenean, baita jarduera baten lagapen-hartzailea lagatzailearen langileen zati handi batez arduratzen denean ere (kopuruaren eta gaitasunen ikuspegitik).

Landako Erakustazokari dagokionez, Udala da Landakogunearen jabea, baita erabiltzeko prestatuta dauden instalazio guztien ere. Bada, udala arduratuko da zuzenean instalazio horiez, instalazioez eta gainerako gauza guztiez arduratuko den erakunde autonomoaren bidez, ustiapenari ekiteko. Gainera, bertako langileekin egingo du hori; hau da, nortasunari eusten dion entitate ekonomikoa izango da, jarduera ekonomiko jakin bat gauzatzeko antolatutako bitarteko multzo gisa hartuta; beraz, LEn 44. artikulua aipatzen duenaren moduko transmisio bat izango litzateke.

7.- Zer egoeratan eten behar den jarduera

Erakunde autonomoi dagokienez, disoluzioa udalak bere burua antolatzeko duen ahalmenaren esparruan sartzen da; hortaz, nahikoa izango litzateke korporazioaren udalbatzak akordio bidez erabakitzea, arrazoi berezirik ez badago ere.